



uk

43. zenbakia / 2003 ekainak 8



GETXO & BLUES

XV FESTIVAL INTERNACIONAL DE BLUES DE GETXO
GETXOKO XV. NAZIOARTEKO BLUES JAIALDIA

ekaina 2003 junio


13 :: Arima Beltza + Ñaco Goñi y los Bluescavidas & Raimundo Amador

14 :: The Blues Devils + Phillip Walker Band

15 :: Tinsley Ellis Blues Band

Algortako Portu Zaharra :: Puerto Viejo de Algorta :: 21:30 :: Bizkaia

Sarrera Dohainik :: Entrada Libre :: Info 94 491 40 80 :: www.getxo.net



Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Ez da elurra. Asier Mentxaka.
6. PLAZA. . Leihatila, Josu Esnaola.
7. LEHEN ETA ORAIN. Ariluze ingurua, Algorta.
8. TALAIA. Beste begirada bat.
10. HERRIZ HERRI. Getxo 10. Leioa 14. Erandio 16. Sopela 18. Berango 20. Gainerako herriak 22.
23. AGENDA.

SAKONEAN

24. ALBUMA. Algortako estiloa. Asier Mentxaka.
26. BERBETAN. Arantxa Iturbe. Unai Brea.
28. ERREPORTAJEA. Urak dakarrena.
30. HAUTESKUNDEAK. Eskualdeko emaitzak.
32. ERREPORTAJEA. Atlantis, Lemoizko nuklearren ondorengoa.

KULTURA ETA AISIA

36. ZINEMA. Oskar Fernández-en zutabea eta Euskadiko Filmategia.
37. MUSIKA. Erromoko Brixton Records-en uztza.
38. IRAKURGAIK. Esti Ezkeraren zutabea eta Transpoem.
39. KOMUNIKAZIOA. Liwa, surf aldiakaria DVD euskarrian.
40. SAREAN. Internet, Iker Merchán-en eskutik.
41. ELKARRIZKETA. Getxoko *Organik* antzerki-dantza taldea.
42. NATURA. Nekazaritza ekologikoa.
43. TXANGOIA. Ereñozarreko mendia, Gonzalo Iribarnegray.
44. OSASUNA.
45. MODA. Azpiko arropak.

EUSKARAZ

46. URIBERTSOAN BARRENA. Unai Angulori elkarrizketa eta gainera bere bertsoak. Algortako Bertsolari Eskola.
48. AKABUKO PUNTE. Janari kontuak eta Xabier Bilbaoren lezioa.
51. EUSKARA. Berriak, elkarrizketa eta Egunkaria.

AMAITZEKO

52. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoen errezeta eta Itsaso Aranaren ardoari buruzko lezioa. Berangoko Candela jatetxea.
54. HOROSKOPOA.
55. KOMIKIA. Dogan Gozel.
56. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
57. FLASH BACK. Franco osteko Getxoko udalbatza. Bittor Egurrola
58. AITORMENAK. Ander Zearra, *Takolo*. Eunat Serrano.



26 Arantxa Iturbe

Berbetan

Txikitatik izan du idazle izateko guraria. Berriki, euskarazko antzezlan onenari zegokion Max saria eskuratu zuen *Ai ama!* lanagatik.



41 Organik



38 Transpoem



24 Algortako etxeak



58 Ander Zearra *Takolo*



AZALA: Asier Mentxaka



zure **dirulaguntza** behar-beharrezkoa dugu!!!

Boluntzarreta

BBK 2095 0121 10 9102483676

sartu zure laguntza gure kontu zenbakian

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa / Ameztzi 6, 4. solairua 5. bulegoa / 48990 Getxo / ukaldizkaria@telefonica.net / tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31 / bulego ordutegia: 08:00 / 15:00

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta
HELBIBIDEA: Arnetzi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48900 GETXO
e-mail: ukaldizkaria@telefonica.net / Posta Kutxa 171
Tel: 94 491 13 37 / Fax: 94 491 58 31
ZUZENDARIA: Jokin Aspuru
ERREDAKZIOA: Unai Brea, Jon Urresti, Urtzi Iglesias, Eunatè Serrano
FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
TESTUEN ORRAZKETA: Xabier Bilbao
KOLABORATZAILEAK: Bitor Egurrola, Itsaso Arana, Gaizka Escudero, Xabier Bilbao, Algortako Bertsolari Eskola, Iker Merchán, Esti Ezkerra, Nagore Etxebarri, Oskar Fernández, Josu Esnaola, Iratxe Agirre, Edurne Ugarte, Xabier Buenetxea, Patxi Díaz, Gonzalo Iribarregaray, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea
MARRAZKILARIAK: Gorka Vázquez, Mitxelko Uranga, Dogan Gözel, Inigo Mirantes
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)
HARREMANAK: Gorka Orueta
FILMAZIOA: Argia / Inprimategia: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
Osorik edo zatiz, makinaz zein informatikaz kopiatzea, baimen barik, erabat galarazirik dago
© Boluntzarreta
Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarteen Topaguneko partaideak da



Aldizkari honek Bizarra Lepoan Euskara Elkarteen dirulaguntza jasotzen du



TOPAGUNEa



GETXOKO UDALA

Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du



Leioako Udala

Aldizkari honek Leioako Udaleko Euskara Zerbitzuko dirulaguntza jaso du



Erandioko Udala

Aldizkari honek Erandioko Udalaren dirulaguntza jasotzen du



Bizkaiko Foru Aldundia

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du

UK

Behar beharrezkoak ditugu zuen dirulaguntza!

BBK2095 0121 10 91 02483676

Boluntzarreta

gugeu

Lurrikarak

Lurrikara: lurrazalaren higidura edo astinaldi bortitza, lurrazalaren barneko puntu batean (hipozentruan) gertatutako perturbazio baten ondoriozko uhinen hedapenak eragindakoa”. Elhuyarrek hala definitzen du berriki Aljeria astindu duen naturaren gertakari bortitza. Jakina da herrialde pobreetan hondamendiak beti direla hondamendiago, loteria makabro horretarako txartel gehiago erosita baleuzkate bezala edo. Aljerian ere, lurraren dardarak utzitako hildako eta zaurituen kopurua izugarria izan da. Epe luzerako ondorioak, seguruenik, apur bat lehenago AEBetan triskantza egin zuen tornadoak eragindakoak baino larriagoak izango dira.

Gugandik hurbilago ere, hainbat lurrikara lehertzeko prest daudela ematen du. Bata lurrikara politikoa da, eta udaletxeak osatzeko orduan igariko dira berorren ondorioak. Batzuek baliogabetzat ematen dituzten botoek erabateko zilegitasuna daukate beste batzuentzat, eta horrek astinaldi bat baino gehiago ekar dezake.

Beste lurrikara bat soziala da eta, *tsunamiak* bezala, itsasotik dator. Ekainaren 15ean bainu-denboraldia irekitzeko erabakian du sorburua eta, edozelan, Richter eskalan lurrikara politikoak baino intentsitate txikiagoa edukiko duela ematen du. Eusko Jaurilaritzak uraren kalitatea egokia izango dela ziurtatzeko emandako arrazoiek ez dituzte talde ekologistak ase. Ikusi beharko da nori sinisten dion herritar xeheak. ⁴

UK-ko lantaldea

gutunak

Atal honetan irakurleen iritzia, eskaerak, gutunak argitaratu nahi ditugu. Zuon testuak bialtzeko: aldizkaria@euskalnet.net • Faxe: 94 491 58 31

goierritarrak



Goizero >>>>

Egunero



MAKALETAKO ETORBIDEA, GETXO 2003

Ez da elurra

Aldaketa klimatikoko garai hauetan, Uribe Kostan topatu daitekeen elurraren ordezkorik duinenetakoa da makalaren hazia. Makalak bere ugaltze-prozesuari ekin dio eta, horretarako, kotoi zuriz inguratutako hazia askatzen hasi da, haizeak ahalik eta urrunen eroan dezan. Gero, haizea nekatu eta kotoiak hegaz egiteari uzten dionean, honelako irudiak sortzen dira. Begi aurrean daukazuen hau Getxon hartu dugu, Makaletako etorbidean. Non bestela? ^m / Argazkia: Asier Mentxaka

Leihatila

> Josu Esnaola

Txapela

Euskaldunon Egunkaria ixteko ETA erakunde armatuari atzemandako paperetan egiten ei ziren aipamenetan oinarritu ei ziren. Orain gutxi, talde armatu horrek emandako prentsaurrekoaren bideoa emateagatik EITB-ko zuzendariak auzitegira deitu zituzten, gero bertan behera geratu bazen ere norbanakoren batek emanaldi hori zela-eta Arzalluzen kontra jarritako salaketa tarteko.

Nik neuk, aitortu behar dut, ez nituen ETB-ko irudiak ikusi, baina begi ninietan iltzatuta lotu zait egunkarietan ikusi nuen prentsaurrekoaren argazkia, hiru morroi buruan txapela zeukatela. Eta horrek guztiz kezkatuta nauka, neuk ere, gutxitan erabiltzen dudan arren, txapela baitaukat.

Kriminala izango ete naiz? Txapela erabiltzea erakunde armatuaren apologia egitea izango ete da? Nirea Elosegi etxekoa da, etakideek erabiltzen dutena ere etxe berekoa bada, horrek etakide egiten nau? Beharbada, nire lasaitasunerako, Garzoni galdetu beharko nioke ea betiko armairuan gordetzea litzatekeen onena ala herriko plazan denen aurrean erretzea. Beste aukera bat txortena kentzea litzateke, baina txortetik gabe, txapela izaten jarraitzen ete du? 4

Iritzia

Ekainaren 15ean bainu-denboraldia irekitzeko erabakiak hautsak arrotu ditu. Ekologistak Martxan-eko Oscar Quintelak bere taldearen iritzia eman digu gai horretaz.

Sei hilabete geroago galipotak euskal kostaldean dirau



«Guk geuk bainurik ez hartzea eta harearekin kontaktu zuzena ez izatea gomendatzen dugu»

Maiatzean, zenbait talde ekologistak kostaldearen miaketa egin dugu Prestigek eragindako marea beltzaren egoera aztertzeko (galipot edo fuelaren eragina, egin den eta egiten ari den garbiketa, garbiketan erabilitako bitartekoak...). Eta, sei hilabete geroago, ondokoa ikusi dugu:

Tamaina handiko plakak ailegatzen ari dira, adibidez, Muskizen aurkitutakoak, Eusko Jaurlaritzaren Sailarteko eta Erakundearteko Batzordearen txostenean “agerian garbia” esan arren. “Galleta” eta “txanpon” tamainako orbanak marearen marra osoan agertzen dira Bizkaian. Mareen eta ekaitzen eragina dela eta, lehen fuel-olio orban handiak zirenak orain zati txiki askotan zatitu dira eta kaltetutako eremua handitu egin da.

“Bolo” osatutako hondartzetan, bildu ez den fuela izerditzen ari da eta, tenperatura igo denez, olioa marea behearen marrara iragazten ari da; honen ondorioz, fuela metro bateko sakoneran aurkitu dugu Meñakozeko hondartzan.


Egoera hau txarragoa da haitzak dauden lekuetan, sartzea zaila delako: hor, itsasoak sare eta soka asko utzi ditu fuelaz beteta, eta hura - fuela- askatzen ari denez, marea arteko eremuetan sartzen ari da.

Hondartzen garbiketa ez da eraginkorra izan eta, gainera, Administrazioaren arduragabekeria utzi du agerian, ez duelako jendea hondartzetan sartzea eragotzi. Hortaz, fuelaz betetako eremuetan jendea sartu da, horrek osasunerako dakartzan kalteekin.

Haitzez betetako lekuetan, azalean zeuden orbanak iragaziz joan dira, egungo egoera sortuz. Haitzak zikinduta daude eta fuel-olioa haien behekaldean dago, arrakaletatik sartu delako. Egoera hau krisialdi honen hasieratik izan dugu, eta hala salatu du mugimendu ekologistak, baina ez dute ezer egin hura eragozteko.

Hau guztia dela eta, ez gaude ados administrazio publikoek ekainaren 15ean bainu-sasoaren irekitzearen inguruan egindako balorazioekin. Egin behar duten lehenengo lana, premiazkoa, onartutako Garbiketarako Protokoloak betetzea da: bertan esaten denez, olio kutsagarriarekin kontaktua izateak dakarren arriskua dela eta, hiritarren osasunari lehentasuna eman eta inguruneari kalte egiten dion marea beltzaren eragina txikiagotzeko neurriak hartu behar dira. Guk geuk bainurik ez hartzea eta orbanekin eta harearekin (fuela lurperatuta baitago) kontaktu zuzena izatea saihestea gomendatzen dugu. 4

Oscar Quintela (Ekologistak Martxan-eko kidea)



Iraganez doa denbora* beti / ARRILUZE INGURUA


* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.



Inolako gehigarririk ez duen ardo gozoa edaten da mezatan


begizorrotz > mezatako ardoa

Pentsatu duzue inoiz abadeak mezatan ostia eta zintzarria bustit- zeko erabiltzen duen ardoa zer motakoa den? Ez? Bai? Tira, berdin dio, guri zuentzat ikerketa txiki hori egitea beste ideiarik ez zaigu bururatu eta, lotsa askorik gabe baina itzelezko jakinminez, Jaunaren etxera deitu dugu ardo kontuez itaunka. Jaso dugun infor- mazioaren arabera, gure inguru honetan erabiltzen dena ardo gozoa izaten da, gehienetan Valentziatik datorrena (okerrago litzateke Jordan ibairaino joan behar izatea bila). Baldintza bakarra, antza, ardo purua izatea da, inolako gehigarri bakoa. Tabernari zekenen lehen manamendua den ur-botatze oparoa, beraz, ez da betetzen hemen. Bizitzaren paradoxetako bat dugu hori: elizan sartzen den ardoa “bataiatu” bakoa izan behar da. Bestalde, eta elizako iturriek adierazi dutenez, aurrebaldintza horiek kontuan izanda lasai asko esan daiteke jaunartzetako ardo kalitate onekoa dela. m



Elkartearen egoitza ur gaineko plataforma bat zen, goian ikus dezakezuen

gauzak > bolaluma



Hona hemen lehen boligrafoaren patentearen marrazkia

1851ean kazetari batek zera idatzi zuen Scientific American aldizkarian: “*Mundu guztiak arkatzaren eta lumaren ordeztu bat nahi du, eta tresna batek bakarrik bete dezake zeregin hori*”. Desio xumea zen, baina ez zen gauzatu 1938. urtera arte. Orduan, Ladislao Biró kazetariak asmatutako lehen bolaluma (edo boligrafoa) patentatu zen Hungarian. Hala ere, 1943an, Biró-k Argentinan erregistratu zuen idazteko tresna berri hori, eta han lehen aldiz finantzatu zen merkaturatua izateko. Biró-ren abilezia paperaren gainean jira egiterakoan tinta arrasto bat uzten zuen bolatxo bat ipintzea lumaren puntan izan zen. Hasieran, boligrafoek 80 eta 100 dolar bitarteko prezioa zeukaten, eta erabat eskuraezinak ziren garaiko batezbesteko soldatentzat; baina 1949an, Marcel Bich frantziarrak kostu gutxiago zeukan modelo bat garatu zuen: *BIC* izena ipini zion gehienok erabili dugun boligrafo mota horri. m

bazen > Real Sporting Club

1898an Neguriko aberats talde batek “Real Sporting Club” elkarte sortu zuen. Nautikaren munduko elkarte izan zen eta gure inguruan kirol honek izan zuen garrantziaren bultzatzailea izan zen. Elkarte honen egoitza Abran zegoen eta 33 metroko luzera, 10 metroko zabalera eta 1,150ko zingoa zuen ur gaineko plataforma bat zen. Bertara heltzeko, Club Maritimoko kaiatik irtetzen ziren motore-untziak behar zituzten. Bela-untzi ugari egon ziren “Real Sporting Club”aren banderapean jarrita eta txapelketa garrantzitsu ugari antolatuta zituen elkarteak. Horietan, nazioarteko nautikaren munduko pertsona famatuenek hartu zuten parte, horien artean, Alfonso XIII.ak. Baina ondoren, garai txarrak etorri ziren, 1980ko urriaren 12an enbata batek Clubaren itsasuntzia hondoratu zuen arte. m

datua > gure herrietako zinegotziak

Hauteskunde osteko giroa oraindik pil-pilean dagoen honetan, Uribe Kostako udaletxeetan zenbat zinegotzi dauden ikertu dugu. Dakizueenez, herri bakoitzak zinegotzi kopuru jakina dauka biztanle kopuruaren arabera (biztanleria osoa kontuan hartzen da, ez soilik botoa emateko eskubidea daukatenak). Hortaz, gure eskualdean zinegotzi gehien daukan herria Getxo da (25). Gutxien, berriz, Lemoiz (7). Bestalde, azken boladan herri batzuek izandako hazkunde demografikoak hainbat aldaketa eragin du: orain arte 13 zinegotzi zeuzkan Sopelak 17 edukiko ditu agintaldi honetatik aurrera. Berangon ere antzeko zeozer gertatu da: aurerantzean, 11 barik 13 izango dira udalbatzako kideak. Gainerako herrietako zenbakiak hauek dira: Erandio: 21. Leioa: 21. Gorliz: 11. Plentzia: 11. Urduliz: 11. Barrika: 9. m

kale izendegia > Manuel María Smith



1879an Bilbon jaio zen Manuel María Smith Ibarra arkitektoak 1957az geroztik dauka kale bat eskainita Areetan. Madrilen egin zituen ikasketak, eta Bilbora itzuli zenean, bertako burgesiaren arkitekto bihurtu zen; esaterako, Neguriko etxeak eta Bilboko Ramón de la Sotaren eraikina egin zituen. Bestelako eraikuntzak ere egin zituen Smith-ek: Eusko Trenbideetako Bilboko geltokia, San Mameseko futbol- zelaiaaren tribuna eta Carlton hotela, besteak beste. Gerra Zibilaren garaian Frantziara ihes egin behar izan zuen; 1937an Bilbora itzuli eta Areeta auzoan etxeak egiteaz aparte, Gernika berreraiki zuen. Bermeo, Elorrio, Donostia, Miarritze, Oviedo, Madril eta beste hainbat lekutan ikus ditzakegu Manuel M^a Smith-en eraikuntzak. Negurin hil zen *Burdin Bidarte* izeneko etxean, 1956ko abuztuaren 16an, 77 urte zituela. m

Irudian, Smith Ibarra jauna



erakusketak
antzerkia
dj.ak

ALGORTA

BISITATU GURE DENDA!



350 m²
KIROLERAKO
GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO
KIROL
DENDA

TORRENE 4
ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA
TF. 94 491 18 82

Europarrak izateko

Aixerrota institutuak The Water Proyect izeneko egitasmoan parte hartu du azken hiru urtetan zehar; martxoan **Poloniako Poznan** hirian egon ziren ikasle eta irakasleek proiektu horren nondik norakoak azaldu dizkigute

Aixerrota institutuko ikasle eta irakasle batzuek, Hannoverreko (Alemania) eta Poznaneko (Polonia) ikastetxetakoakaz batera, hiru urte iraun duen The Water Proyect izeneko egitasmoan parte hartu dute. Martxoan egin zuten azken bidaia, Poznan hirira hain zuzen, eta helburu nagusiak, kulturen elkarketa eta europartasun sentimendua sustatzea, betetzat jo dituzte protagonistek.

Joan den martxoan, Aixerrotako hiru irakasle eta zazpi ikasle (ia denak Batxilergoko bigarren ikasturtekoak) Poloniako Poznan hirian egon ziren, hango familiakaz bizitzeko eta ikasturtean zehar gauzatutako lanak aurkeztu. Lan horien ardatza ura da, eta hortik dator proiektuaren izena.

“Egitasmo honek Europa mailan hezikuntza sail desberdinek dauzkaten akordioetan dauka jatorria”, azaldu digu Ane Oliverosek. Bera da Polonian egon denetako bat eta, hori ez ezik, hasieratik proiektuan buru-belarri murgilduta ibili den Aixerrotako beharginetako bat. “Hasieran irakasleok egin genituen bileretan, ura aukeratu genuen gaitzat, zehatza eta aldi berean zabala zelako”.

Ura, alderdi desberdinetatik aztertua. Holan hasi zen hiru herrialdeetako ikasleak batu dituen proiektua. Ikasleek eurek adierazi digutenez, “ura ikuspuntu askotatik aztertzea zen gakoa. Matematikak, biologia, artea...”. Horrek jende askoren parte hart-



Egitasmoan parte hartu duten zenbait ikasle eta irakasle. Behean, Polonian hartu zuten irudi bat.

zea eragin du: “Hemengo 30en bat irakasle ibili dira lanean”, dio Oliverosek, “bidaietara bospasei besterik joan ez garen arren”. Bestetik, baldintza batzuk bete behar ziren The Water Proyect-en egoteko. Alde bate-

«Iaz, Getxon izan zen ikasle-elkarketa»

tik, ingelera menperatzea, harreman guztiak hizkuntza horretan gauzatu dira eta. Bestetik, ezinbestekoa zen, dirulaguntza jasotzeko, egitasmoan hiru herrialdeetako ikastetxeek parte hartzea.

Halan, duela urte bi Hannoverren egin zen lehen bilera. Bigarrena, Getxon, eta

hirugarrena Poznanen. Bertan Aixerrotako ikasleek aurkeztutakoen artean, Prestigeren gaineko lana (Power Point programa informatikoaz egindakoa), Nerbioi ibaiari buruzko DVDa eta Bizkaiko Zubiaren inguruko azterketa aipa daitezke. m



Txakurrak txukun eta dotore lagatzen dituen ile-apaindegia



Arantza Alberdi (ezkerrean) eta Ainara Urrutxi (eskuinean) txakur bi apaintzen

Arantza Alberdi azkoitiarra, eta haren alaba Ainara Urrutxi sei urte daramatzate txakurrei ilea moztzen eta garbitzen Algortako dendan. “Aspaldiko zaletasuna da”, diosku Arantzak, “eta Donostian ikasi nuen arren, autodidakta naiz”. “Ez dakit zenbat txakur txukundu ditugun amak eta biok, baina ehundaka, ziur”, dio bestalde Ainarak.

Ohiko “bezeroak” txakur txikiak eta lagun egitekoak dira batez ere: cocker, schnauzer, terrier, yorkshire eta horrelakoak. Eta gehien “eskatzeko” dituzten zerbitzuak garbiketa eta mozketa dira. “Horretaz gain, azazkalak moztu ditugu, baita parasitoen aurkako tratamenduak eman ere”. Txakurren jabeek ez dizkiete bitxikeriarik eskatzen: “Egin ohi ditugun mozketak estandarrek dira, hori delako bezeroek

eskatzeko dutena. Dena den, behin batek bere kanitxearen buruko ileari lauki-forma ematea eskatu zigun, Bel Air-eko Printzea bezala”.

Itxurako txakurrak Algortan

Bai Arantzak bai Ainarak haginkadak jaso dituzte beharrean: “Horiek lanaren arriskuak dira, baina ez digute askotan kosk egin. Guk ez diegu muturrekorik ipintzen, jendearekin egoten ohituta dauden txakurrak direlako”. Oro har, hiru hilean behin etortzen dira txakurrak ile-apaindegira, baina badira hilero edota urtean behin bakarrik hurbiltzen direnak: “Hori arrazaren arabera dago”. Arantza Alberdik azaldu digu Algortan txakurrak ondo zainduta daudela eta itxura ona daukatela, “atzerriarrak ere horretaz jabetzen dira”. m

DORTOKA ARROTZAK KENDU DITUZTE BOLUEKO HEZEGUNETIK

Bolueko hezeguneak dortoka espezie desberdin bi eduki ditu orain gutxi arte. Maiatzetik, ordea, bertokoa baino ez da geratzen, dortoka “lepradun” izenez ezagutzen dena alegia. Izan ere, beste espezieak, Floridako dortokak hain zuzen, kalte egiten zion bertokoari, Ameriketako eta Europako espezie bik elkarregaz bizi diren gehienetan bezala. Hori eragozteko, Getxoko Udaletxeko Ingurumen Sailak sustatutako “SOS galapagoak” egitasmoak Floridako 120 dortoka kendu ditu Boluetik. Bertoko dortokaren 25 aleei, berriz, txip bana ipini diete, populazioaren kontrola egin ahal izateko. Adierazi dutenez, bertoko dortoken oskolak salmonelaz kutsatuta egon litezke, eta horrek azterketa zorrotza egitera behartzen du.

Floridako dortokak kentzeko, mariskoa harrapatzeko erabiltzen direnen antzeko nasak erabili dira. Kasu honetan, baina, ez dituzte nasak guztiz urperatu, behin harrapatuta lotu ostean dortokek arnasa hartzen jarraitu ahal zezaten.

Bertokoa den, lepradun dortoka



UMEENTZAKO UDALEKU IREKIAK EUSKARAZ

BIZARRA LEPOAN Euskara Elkarteak uztailen zehar udaleku irekiak prestatu ditu Bapiruke egitasmoaren barnean, **6-12 urte** bitarteko ume euskaldunentzat

- **Non:** J.B. Zabala eskolan
- **Txanda 1:** ekainaren 30etik uztailaren 11era arte / Txanda 2: uztailaren 14tik uztailaren 24ra
- **Ordutegia.** Goizez 9:00etatik 13:30ak arte / Arratsaldeaz 15:30etatik 18:00ak arte
- **Prezioa.** Bazkideek, 75 euro / Ez bazkideek, 100 euro
- **Izena emateko epea:** ekainaren 18ra arte. bizarralepoan@euskalnet.net / 94 491 43 57

BaPiRuKe

GEHIEGIZKO ZARATA NEURTUKO DUTE

Hemendik lasterrera, gehiegizko zarata neurtzeaz arduratuko da enpresa pribatu bat Getxon. Iazko udan, Udaltzaingoak 187 salaketa jaso zituen zarata zela eta. Hala ere, zarataren iturriak aldatuz doaz, aditzera eman dutenez. Gero eta gutxiago dira tabernetako edo bestelako merkataritza-egoitzetako zaratagatik jartzen diren salaketak, eta aldiz, gora egin dute kaleko zaratak nahiz bizilagunek sortutakoak eragindakoek. Neurketak egingo dituen enpresak, gainera, txostenak egingo ditu negozioak irekitzeko baimena eman aurretik.

FADURAKO KANPOKO IGERILEKUAK EKAINAREN 14AN ZABALDUKO DIRA

Hiru hilabetez egongo dira zabalik Fadurako kanpoko igerilekuak, ekainaren 14tik irailaren erdira arte, hain zuzen. Igertoki olinpikoaz aipatzekoa da orain arte baino metro erdi gutxiagoko sakonera edukiko duela, egiten dabiltzan lanei esker. Horrez gain, gainetik estaliko duen egituraren euskarriak ipintzen dihardute. Lanek uda eta gero jarraituko dute, eta helburua igerilekua urte osoan erabiltzeko moduan atontzea dute. Urte amaiera baino lehen lana guztiz amaituta egongo dela iragarri dute.

IRUZURRA MARKETIN IKASTAROETAN

Euskal Herriko 600en bat lagunerri iruzur egin diete marketin ikastaro salmenta piramidal bat dela eta. Euskadiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Erakundeak adierazi duenez, kaltetutako asko Getxokoak dira. Salmenta piramidala legez kanpoko da. Lehenbizi diru kopuru bat eman behar da (kasu honetan, 1800 euro) eta gero, ikastaroan izena emateko lagun gehiago konbentzitzea eskatzen zaio ikasleari, horren truk dirua jasoko duela aginduz. Urkoak Uribe Kostako kontsumitzaileen elkarteak hainbat salaketa jaso ditu dagoeneko iruzur hau dela eta.



“Bode’s Sex Shop” sexu-dendara neska gazteak ere sartzen dira

Algortako txokorik beroena

Andoni Bilbao gazteak Uribe Kostako lehendabiziko sexu-denda zabaldu du

Duela hilabete bat (Maiatzaren 9an, hain zuzen ere) Andoni Bilbao Butrón 27 urteko algortarrak “Bode’s Sex Shop” izeneko denda zabaldu zuen (*Bode* bere goitzena da); Algortako Etorbidearen 86. zenbakian dago eta eskualdean irekitzen den lehenengo sexu-denda da.

Dirua emango zuen negozio bat eraman nahi zuelako bururatu zitzaion ideia, eta Andonik dioskunez, “*sexuarekin zerikusia daukan guztiak dirua ematen du*”; Uribe Kostan zegoen hutsunea bete eta dagoen eskaria asetu ere nahi zuen, “*bezeroak Bilbonaño joan beharrik ez izateko*”.

Sexu-dendarentzako kokaleku aproposa aurkitzeak, lokala bera aurkitzeak baino lan gehiago eman zion: “*Garbi dago ez nuela Telletxen paratuko: ez hirigunean, ez eta bazter ezkutu batean ere*”. Andoni Bilbaok aitortu digu sexu-dendak hasiera nahiko ona izan duela eta adin guztietako jendea sartzen dela; gainera, auzokoak ez dira kexatu, “*alderantziz, dendan sartu dira eta zorte on opa didate*”.

Bartzelonatik ekarritako txantxetarako gaiak, panpin puzgarriak, kontsolagailuak, bibragailuak, lentzeria, bola txinatarrak, bilurrak, lubrifikatzaileak eta era guztietako zakil-zorroak daude aukeran; “*eta laster fil-*

«Sexuarekin zerikusia daukan guztiak diru asko ematen du»

mak ipiniko ditut salgai”. Argi gorrixkak dauzkan sexu-denda hau (“*giro apur bat emoteko*”) astelehenetik zapatuta arte dago zabalik, eguerdiko 12etatik ordu bietara, eta arrastiko 6retatik gaueko 11:30 arte. ^m



Txotxongilo eguna

ospatuko da Getxon lehenengoz aurten

Ekainaren 14 eta 15ean, Euskal Herriko txotxongilo eguna ospatuko da Areetako geltokiko plazan. Sarreraren prezioa euro batekoa izango da eta haurrei eta baita nagusiei ere zuzendutako hainbat ikuskitzuna egongo dira bertan.

UNIMA Euskal Herria elkarteak antzerki taldeek 26 antzezpen eskainiko dituzte. Horietatik 11 euskaraz, 7 gaztelaniaz eta beste 8, testurik gabekoak. Besteak beste, Larrabetzuko “Kukubiltxo”, Getxoko “Antzezkitzuna”, Bilboko “Tenderete” edota Ondarroako “Corrado Massaci” taldeen beharrak izango ditugu ikusgai. Antzezpen hauetarako guztietarako, 6 eszenatoki erabiliko dituzte.

Halaber, erakusketa bi egongo dira; le-

henengoa, panpinena (erraldoiak, buruhandiak eta Zaldikoak) eta bigarrena, Euskal Herriko ihauterien pertsonaiez osatutako hari-txotxongiloena. Horrez gain, erraldoiak, herensugeak, buruhandiak... egiteko tailerrak egongo dira eta txikienek Bilboko Gargantuarekin gozatzeko aukera izango dute. Egun bietan, txistulariak, trikitilariak, dultzaineroak... egongo dira plazatik zehar. Horrekin batera, Lamiakoko maskaradari homenaldia egingo diote, aurten 25. urteurrena baita.

Jaialdiari amaiera emateko, dantzaldi herrikoia egingo dute igandean. Bertan titiriteroek eta baita ikusleek ere hartuko dute parte; egun bietan, tailerretan egingako txotxongilo handiak erabiliz. ^m

BAPIRUK EGITASMOAREN BARRUAN UZTAILEAN ZEHAR UMEENTZAKO UDALEKU IREKIAK EUSKARAZ

Bizarra Lepoan Euskara Elkarteak bultzatutako Bapiruke egitasmoak udarako antolatuta dituen hainbat jardueraren berri eman du. Batetik, ekainaren 14an (zapatua), egunpasa egingo da Bermeon. Egitarauaren barruan, herria ezagutzea, Izaro irlara itsasontziz igarotzea eta arrantzaleen museora bisita egitea daude. Irteera goizeko 8’30etan izango da, eta itzulera arratsaldeko 7etan. Izena emateko epea ekainaren 10a arte egongo da zabalik.

Bestetik, uztailean udaleku irekiak egingo dituzte Juan Bautista Zabala eskolan, 6 eta 12 urte bitarteko umeei zuzenduta. Txanda bitan banatuko dira udalekuok: lehenengoa, ekainaren 30etik uztailaren 11a arte eta bigarrena, uztailaren 14tik 24a arte. Ordutegia goizeko 9etatik 1’30ak arte eta arrastiko 3’30etatik 6ak arte izango da (arrastikoa, martitzen eta eguenetan). Izena emateko epea, kasu honetan, ekainaren 18a arte iraungo du.

Harremanetarako: 94 491 43 57



Basurto

Algorta S.L.

altzariak

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- 1970az geroztik altzariak diseinatzen.
- Orain ere, armairuak neurrira.
- 200 m²ko erakusketa berria: Telletxe 4 (T: 94 460 71 62)

Zatoz!

Telletxe 15 • Algorta • T: 460 42 44

Udondoko poligonoa, ia prest

2001eko azaroan hasi ziren Udondon poligono industrial berria eraikitzeko lanak, eta hilabete bat baino gutxiago falta da lehen zatia amaituta egoteko. “*Proiektuak hiru fase dauzka*”, esan digute Udaletxeko iturriek, “*lehenengoa datorren hilean egongo da prest, eta hurrengo bietarako ez dago oraindik data zehatzik*”.

Poligono berria hirugarren sektorerara zuzendua dago. “*Zerbitzuak egongo dira, industria tradizionalaren ordezk*”. Gogora dezagun lehen Launquinesa enpresa handia zegoela bertan, eta kutsadura sortzen zuela-eta kendu zutela. Orain, batik bat merkataritzak hartuko du lekua pabiloi berrietan. Horrez gain, bulego-erakin bat ere edukiko du poligonoaren lehen fase honek. ^m

Poligono berria



laz, koadrilen jaitsieran hartutako irudi bat

Badatoz Sanjuanak Ekainaren 14an hasiko diren jai hauetan Mikel Erentxunen kontzertua nabarmentzen da

Leioari jai usaina dario. Gutxi falta da-eta ekainaren 14an hasi eta 24an amaituko diren aurtengo Sanjuanei hasiera emateko. Aurten ere asteburu bi hartuko ditu jai-egitarauak: jaiek ekainaren 14 (zapateria) eta 15ean (domeka) hasiko dute euren ibilbidea, eta gero, etentxo baten ostean, 19an bueltatuko dira, San Juan egunera arte herria jai giroaz bustitzeko.

Aurten, Mikel Erentxunek jaietako lehen egunean emango duen kontzertua nabarmendu behar da (23. orrialdean infor-

mazio gehiago aurkituko duzue). Horrez gain, honakoak dira aipagarrienak: ekainaren 14an, eta Mikel Erentxunen aurretik hain zuzen, Leioako III. Pop-rock Lehiaketaren irabazleak kontzertua emango du, gaueko 11etan. Ekainaren 20an (barikua), arratsaldeko 8:15ean, kodrila jaitsiera egingo da Elexaldetik Bulebarrera. San Juan bezperan, berriz, sutea piztuko da Udaletxean. Gaueko 11etan ekingo zaio ohitura zaharrari, txosnetan Trikitrixa Kontrairoren kontzertua hasiko den ordu berean alegia. Ondo pasa! ^m

Denis Peinado > eskalatzailea

Hormetan gora



Argazkian, Denis Peinado eskalatzen

Hogeitabost urte dauzka Denis Peinadok, eta horietatik zazpi inguru eskalatzen eman ditu, sukaldari lanean darian denbora bera, gutxi gora behera. Leioako jatetxe batean daukan lanak uzten dionean, “*domekatan baino ez, beraz*”, inguruko hormarik bertikalenen bila abiatzen da Denis. Horrez gain, “*astean hiru bider*” entrenatzen du. Gehienetan Txuridinagan dagoen *boulder*-era joaten da, Uribe Kostan dauzkagunak baino txukunagoa ei da eta.

Iberiar penintsulako Iparralde osoan ibili dela diosku. Astean egun bakarra

daukanez libre, Bizkaian jarduten du gehienetan. Hala eta guztiz ere, laster Mallorcara joateko asmoa dauka, “*hango 7c edo 7b bat egitera*”. Denisek egin duen zailena, orain arte, 7b+ da (horma batek eduki dezakeen zailtasun mailarik handiena 9b da).

Lau ebakuntza egin dizkiote belaunetan, azkenekoa otsailean. “*Irristaketa egiten kolpea hartu eta menisko biak hautsi nituen*”. Gero, eskalatzeak, lanak... belau-nak izorratzeko falta zitzaion apurra egin zuten. Orain, “*menisko erdia*” baino ez duen arren, primeran dabilela dio. ^m

ATERPEK ANTOLATU DITUEN LEHIAKETEN EMAITZAK

Natalia López leioaztarak irabazi zuen maiatzaren 18an, eta Aterpe Leioa Gazte Bulegoak antolatuta, egin zen Margolari Gazteen VI. Saria. Bigarren eta hirugarren postuetan Carmen M^a Vázquez bilbotarra eta Gorka Larrañaga azkoitiarra sailkatu ziren, hurrenez hurren; Tamara Rodríguez, berriz, Leioako onenaren atalean nagusitu zen. Bestalde, Leioako III. Pop-Rock Lehiaketara 45 talde aurkeztu dira azkenik: 33 pop-rock atalean eta 12, berriz, metalean. Aurtengoa inoiz baino talde gehiago aurkeztu den edizioa izan da, eta Euskal Herri-kanpo etorritakoak ere daude tartean: Madril, Sevilla, Kordoba eta Valentzia. Pop-rock ataleko finalistak Boogie Punks bizkaitarrak, Bol nafarrak eta Terremoto Joshua valentziarrak dira; hirurek ekainaren 7an Txomin Arestiko karpan 22:00etatik aurrera egingo den kontzertuan parte hartuko dute, eta han ezagutuko dugu talde irabazlea nor den. Edizio hau ixtarakoan, oraindik ez zuten ezagutzera eman metal ataleko hiru finalisten izenak.

BEROGAILU ETA ITUR -



T: 430 53

Sarrikobaso 15

ETXETRO?ELEKTROTRESNEN?KONPON -

Lacofris, s.l. SERVITEC

¥ MARKA GUZTIAK
¥ 24 ORDUTAN ERANTZU-
NA
¥ 3 HILABETEKOKO GARAN-
TIA
¥ 25 URTEZ ZURE ZERBITU-
A

& 94 430 52 00

Kasune, 18 • ALGORTA

KURKUDI LIBURU DENA

Euskarazko irakurgai

Juan Bautista Zabala 8, 48990 ALGORTA
T: 944 913 402



amesti 7sl

[eraikuntzak]

[etxeetako berrikuntzak]

[gremioen koordinaketa]

Kasune 9 • Tel./Fax: 94 431 98 06
48990 ALGORTA

ERROTULOAK



ERA GUZTIETAKO ERROTULOAK egiten ditugu

Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

udondo taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA



erandion

aldizkaria
etxean
jaso nahi
baduzu

94 491 13 37

dirulaguntzak
Boluntzeria
BBK 2095 0121 10 9102483676
sartu zure laguntza gure kontu zenbakian

UK Uribe Kostako Aldizkaria
171 posta kutxa / Amezti 6, 4. solairua 5. bulegoa / 48990 Getxo /
ukaldizkaria@telefonica.net / tel.: 94 491 13 37
/ faxa: 94 491 58 31 / bulego ordutegia: 08:00 / 15:00

Saioa Alonso > **Basetxea** saioan lehiakidea

“Eguneroko ohikeriatik alde egitearren joan nintzen *Basetxe-ra*”

Saioa Alonso Erandioko ordezkaria izan da Euskal Telebistako *Basetxea* saioan. Erandioztarrak gutxitan agertzen dira kutxa txikian, baina hau ezustekoa Saioarena! Zergatik joan zen hain bizitza petrala ezagutzero? Bada, eguneroko martxa apur bat aldatzearren. Eta nor topatu zuen han? Bada, beste erandioztar bat, Txema Montoya. Hori bai, azken hau zuzendari lanean.

—Zerk bultzatu zintuen *Basetxea*-n sartzera?

—Zelako esperientzia zen probatzera joan nintzen, eta, horrezaz gainera, eguneroko ohikeriatik alde egitearren.

—Eta *Basetxea*-n bilatzen zenuen helburu hori bete zenuen?

—Bai, oraindik ere askotan gogoratzen naiz barruan igarotako egun haietaz. Bideoan ezarritako programak sarritan ikusten ditut, eta, egia esan, faltan sentitzen dut.

—Baina, zelan izan dezakezu saio hori hain gustuko, hain bizileku gogorra izanik?

—Beno, niretzat ez zen oso gogorra izan. Justu bost egun horietan egon nintzen etxean, eta beraz, ez zitzaidan oso gogor egin. Gainera besteak ere egoera berdintsuan ikusita, bada, errazago egiten zaizu.

—*Basetxe*-ra joan baino lehen ezagutzen zenuen telebista barrutik?

—Ez, ez nuen ezer ezagutzen. Saioren bat zuzenean ikustera joana nintzen, baina ikusle moduan; adibidez, *Bexamela*.

—Eta saio bateko partehartzaile zuzena izanda, ezusterik bai?

—Batez ere ohartu naiz zelako indar eta eragina duen telebistak. Ez nuen uste hain bestekoa zuenik. Beste alde batetik, ikasten duzu zelan jokatzeko duten; izan ere, manipulazio puntu hori ere badago.



Argazkian, Saioa Alonso

—Zergatik, ba?

—Telebistan ez da ehuneko ehuna ikusten, baizik eta grabaturiko irudien ehuneko hamarren bat edo, eta gainera eurek aukeratzen dituzte. Horregatik diot normalean dela manipulazio puntu hori egotea. Gainera, programa saldu behar dute, eta badakizu...

“Normala da telebistan manipulazio puntu bat egotea”

—Erandioztarra zara zu, *Basetxea* saioko zuzendaria bezala, Txema Montoya. Txantxetarako astirik?

—Bai, casting-ean bai, pixka bat, baina gero ez. Ez nuen harreman handirik bera-gaz. “Aupa!”, “zelan?” eta horrelakoak bai, baina haratago, ez. m

Sutagar Martiartuko jaietan

San Bernabe, San Antonio, Gorpuzti, San Pedro...
jai ugari ekainean Erandioko **auzoetan**



Martiartuko jaibatzerdea

Udaldiari usaina hartzen hasi eta batera jaietan murgiltzen da Erandioko herria. Hamaika auzo eta hamaika jai-batzorde dugu herrian lanean: ekaineko lehen aste-buruan San Bernabe jaiak Fano auzoan, San Antonioak Martiartun bigarrenean, Gorpuztiko jaiak Erandio Goikoan hirugarrenean, eta San Pedroak Kukularran ekaineko azken asteburuan. Ez dugu aspertzeko betarik izango.

Eta horietan guztietan deigarrienak Martiartuko San Antonioak direla esan dezakegu, auzo txikia izan arren bertako jaiak entzutetsuak baitira inguruko herrietan ere, eta jende ugari erakartzen baitute. Urtero antolatzen dituzte zaldi-probak, idi-probak, erome-riak eta sokatira txapelketa. Ez da ahaztu behar bertakoa dela Goiherri sokatira taldea eta honezkero badirela 15 urte Euskadiko sokatira txapelketa antolatzen dutela.

Horrelako jaiak antolatzeko dirua nondik ateratzen duten galdetu diogu jai-batzordeko kide den Juanjo Billalabeitiari, eta jaietarako diru eske etxex etxe joaten direla eta horrela diru partida polita lortzen dutela esan digu. Horrez gain zozketak egiten dituzte eta jaiegunetan jartzen duten txozna ere diru iturri garrantzitsua izan ohi da, batez ere eguraldiak laguntzen badu. Gaineratzen du baina, eguraldia txarra izanez gero, jendea ez dela hurbiltzen eta hurrengo urterako diru barik geratzen direla. Horregatik saiatzen dira beste modu batzuetara ere dirua lortzen: horren adibide ona, apirilaren 30ean antolatu zuten gaupasa, jaietarako dirua ateratzeko. Ez da lan makala egiten dutena!

Jai giro jatorra nahi duenak aukera aparta dauka Martiartuko dorrearen inguruan ekainaren 13tik 15era. m

LABRIT KANTARIA ERANDION IZAN ZEN

Maiatzaren 16an Erandioko Altxaga auzora hurbildutako guztiok gustura utzi gintuen Labrit kantariak bere kontzertuan. Karraka tabernan bildutako askori Labrit izena han edo hemen entzun izanagatik bakarrik ezaguna baldin bazitzaion ere, hedabideen bitartez zabalduetako irudi erabat komertzialengatik edo “bestelako kantaria” topatuko zuelakoan zegoenik ere ez zen falta aretoan. Kontzertu amaieran, ordea, bildutako laurogeitaka lagunak ez ezik, kantaria bera ere oso pozik agertu zen. Kantariak berak esan zigunez, “*formatu txikiko kontzertuak dauzkat gustukoan, jendea aurrez aurre duzula freskuagoak baitira*”. Berbotsek holako aukera gehiago eskaintzea espero dugu.

Argazkian, Labrit kantaria



EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIA

EBPN garatzeko “konpromisoak” gizarteratu ditu Erandio Elizateko Udalak maiatzaren 15ean Udaletxean egindako jendaurrekoan. Bertan Hizkuntza Politikarako sailburuordea –Patxi Goenaga–, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Sustatzeko zuzendaria –Gotzon Lobera– eta Erandioko alkate-udalburua –Mikel Arieta-Araunabeña– azaldu ziren, EBPEN Erandion garatzeko erakunde bakoitzak hartu konpromisoen berri emateko. Hona hemen Planaren zutabe nagusiak.

- HPS: Aholkularitza eta planaren alderdi guztien ereduak.
- Foru Aldundia: ALKARBIDE (Bizkaiko euskara zerbitzuak alkartzeko gunea) eta dirulaguntzak.
- Erandioko Udala: Erabilera Plana, Euskararen Aholku Batzordearen eta Plan Estrategikoaren proposamena.

Azkenik aipatu, ekitaldi honetara udalerriko kirol eta kultur elkarte zenbaiten kideak ere hurbildu zirela.

Eskulturak nongura

Mota guztietako hamaikatxo eskultura paratzeari ekin dio udalak



Sopelagaz lotura daukaten gaiak aukeratu dira ipini beharreko eskulturak hautatzeko

Herriko alkate berria izango den Imanol Garaik orain arte Kultura saila zuzendu du Udaletxean. Nor hobe, beraz, Sopelan azken urteotan ipini diren eskulturez berba egiteko. *“Gure asmoa herria edertzea da batez ere”*, diosku, *“eta herriko txokoek esangura eduki dezaten ahalegintzea”*.
Duela seiren bat urte hasi ziren mota guztietako eskulturak ipintzen. Aingura bi izan ziren lehenengoak, *“herrian dagoen marinel mordotxoaren omenez”*, eta horien ostean gaur egun ezagunenetakoa den nes-kato patinatzailearen irudia etorri zen. Zerrenda ez da makala: surflari baten alego-

ria, palmera baten beste bat (biak Larrabasterran), rap-reggae abeslaria, txirrin-dularia (Joane Somarribaren omenez duela gutxi inauguratua), euskal balearen alegoria eta itsasontzi baten helize handia. Elizaren alboko biribilgunean kokaturiko hauxe da, hain zuzen, oraingoz azkena.
Imanol Garaik adierazi digunez, Sopelagaz lotura daukaten gaiak aukeratu dira, gehien bat, ipini beharreko eskulturak aukeratzeko orduan. Urgitxieta plazako palmera izan daiteke arau horren salbuespenetako bat. *“Benetako palmera bat zegoen hor, baina lehorte egin zen. Horregatik erabaki genuen,*

haren oroigarri moduan edo, palmeraren eskultura paratzea leku horretan”, azaldu du alkate berriak.
Aurkako iritziak
Ia ezer ez da guztion gustukoa, eta esan barik doa Sopelan ipinitako eskulturak ere horixe gertatzen dela. Askoren ustez, estatua herriaren aurkako eraso estetiko dira. Kontuak kontu, Udaletxeak ia seguruenik ildo beretik jarraituko duela dio: *“Kultura maite dugu eta zeozertan pentsatuko dugu”*. Momentuz, asmo zehatzik ez; hauteskunde-en biharamuna gainditu artean ez behintzat.

Motorzaleen elkargunea

Hainbat topaketa egin dira Indian tabernan



Aurtengo udan bizpahiru elkartzetako dituzte

2001eko otsailean ireki zutenetik, Indian Motorcycle Club of Sopelana izen luzeko taberna (Indian besterik ez, gura-go baduzue), Bizkaiko eta are kanpoko motorzaleentzako erreferentzia bihurtu da. Javi Iturregi algortarra da Indian ireki zuten bazkide bietako bat, eta esan digunez, motorren mundua aukeratu zuten beste edozein aukeratu zezaketen bezala: *“Arrunta da orain tabernak zerbaiten inguruan girotzea. Guri motorrak bururatu zitzaizkigun”*.
Egia esan, eguneroko giroa ez da motorzalea, denetariko jendea batzen da bertara. Hala ere, bi urte hauetan bospa-

sei motorzale topaketa antolatu dituzte. Azkenekoak (apirilean egin zuten) Harley-Davidson marka ezagunaren maitaleak batu zituen, eta oso arrakastatsua suertatu zen. *“Ehunka lagun etorri ziren Espainiatik”*, dio Iturregik. Bestela, hurbilagokoentzat antolatzen dituzte elkar-ketak gehienetan, *“Euskadiko jendearentzat”*.
Aurtengo udan ere beste bizpahiru elkartzetako dituzte Indianekoek. Diotenez, inguruko motorzale guztiek ezagutzen dute Larrabasterran hondartzetarako bidean dagoen taberna hau. **Harremanetarako: 94 676 63 08**

EKAINAREN 8AN, ARTISAUTZA AZOKA LARRABASTERRAN

Aurten, Sopelan egin ohi diren azokei Larrabasterran egingo den artisautza azoka gehituko zaio. Ekainaren 8an egingo da azoka berri hau, Urgitxieta plazan hain zuzen ere, eta udal ordezkariak adierazi dutenez, kultur eskaintza auzo guztietara ailegatzea da helburuetako bat. Orain, Larrabasterrako azokak inguruan egiten diren beste azoka batzuen artean lekutxo bat topatzea da lehenbiziko asmoa. Horregatik, antolatzaileek ahalik eta jende gehien bertaratzeko gura lukete, *“azoka egonkortzen hasteko”*, oraindik ere Kultur zinegotzi lanetan diharduen Imanol Garairen berbetan. Azoka zikloak dagoeneko tradizio txo bat daukaten Erdi Aroko azokaz eta nekazaritza azokaz jarraituko du. Lehenengoa, azken urteotan ospe handiena lortu duena beharbada, abuztuko lehen asteburuan burutuko da eta bigarrena, iraileko bigarren asteburuan.

ETXEKO?ELEKTROTRESNEN?KONPON -
Lacofris, s.l. SERVITEC
Y MARKA GUZTIAK
Y 24 ORDUTAN ERANTZU-
NA
Y 3 HILABETKO GARAN-
TIA
Y 25 URTEZ ZURE ZERBITU-
& 94 430 52 00 Kasune, 18 • ALGORTA

KURKUDI
LIBURU DENA
Euskarazko
irakurgai
Juan Bautista Zabala 8, 48990 ALGORTA
T: 944 913 402

BARBIRULAU 5 BOST
erakusketak
antzerkia
dj.ak
ALGORTA

zure publizitatea hemen
94 491 13 37

GOIZEAN
Gozoki eta prentsa, gutxi denik
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Litxarrierak
Orduña Mendatea 1 T: 430 22 13
GETXO T: 460 02 88
ALGORTA

Basagoiti, 55 behea
T.: 94 460 09 62 / 66
Faxa: 94 460 0966
48990 ALGORTA
eginkor@euskalnet.net
www.inmoeginkor.com
EGINKOR
INMOBILIARIA

LAIKAK
Taberna
Bentatxu, 2
48600 Sopela
Tlf. 94 676 03 28

Javier Otxoa berriz bizikleta gainean

Berangoztar gazteak txirrindulari paralinpikoen **lasterketa** batean **hartu zuen parte** joan den maiatzaren 24an, Basaurin

2001eko otsailaren 15ean jasandako istripu latzaren ostean lehenengoz, Javier Otxoa txirrindulazko lasterketa baten hartu zuen parte joan den maiatzaren 24an. Proba, Basaurin egindakoa, paralinpiko mailakoa zen, baina bertan parte hartzea beharbada Javierrek bere ibilbide osoan zehar lortutako garaipenik handiena izan da. Izan ere, bere anaia Ricardoren bizia zanpatu zuen istripuko ondorioak oso latzak izan dira aurten 29 urte beteko dituen txirrindulariarentzat.

“Profesional moduan ibiltzea gustatuko zitzaidakeen, baina dauzkadan zauriak direla eta, ezin izango naiz berriro %100ean egon. Apurka, onartuz joan behar dudana zerbit da”, diosku Javierrek. Komatik irtetea hasitako osatze ia miragarriak etapa asko dauzka aurretik, oraindik ere. “Hemendik aurrerako pausuak gero eta zailagoak izango dira, eta asko kostatuko zait horiek ematea”.

Basauriko lasterketan parte hartu izanak azken hilabeteetan galduta zeukan komunikabideen arreta itzuli dio, eta hori hainbat mezu bidaltzeko erabili gura du: “*Gidariek txirrindularienganako errespetua edukitea da gehien gura dudana, profesionalak izan ala ez. Bide batez, pertsona gutxituek kirola egiteko orduan dauzkaten zailtasunak eta laguntza-*

«Hemendik aurrerako pausuak gero eta zailagoak izango dira»

rik eza gogonarazi gura nuke”. Javierrek ez du lasterketa gehiagotan ibiltzeko asmo zehatzik. Izan ere, Basauriko lasterketarako entrenatu ere ez zuen egin. “*Horrelako batetara berriro deitzen badidate, joan egingo naiz, baina momentuz datorren urtera arte itxarongo dut lehiatzen hasteko”.* m



Argazkian, Javier Otxoa

Baserri zaharrena ete?



Intxaurraga Bekoa baserria

Erretratuan dagoen hau izan daiteke, zutunik dirautenen artean, Berangoko baserririk zaharrena. “Izan daiteke” diogu, baserrien adinari dagokionez gutxitan jo daitekeelako ezer ziurtzat. Alberto Díez berangoztar ikerlariak esan digunez, “gehienez ere baserri baten gaineko aipamenik zaharrenaz egin daiteke berba”. Horren arabera, eta Díezek berak idatzitako *Berango, 40.000 años de historia* liburua oinarritzat hartuta, Intxaurraga-Bekoa da herriko baserririk antzinakoena. Aurkitutako agiritatik ondoriozta daitekeenez, 1465ean behintzat bazen gaur egun egoera negargarrian dagoen baserri hau.



Kultur Etxean egingo dira ikastarook

UZTAILEAN, GAZTE EUSKALTEGIA

Ekainaren 30etik uztailaren 22ra Gazte Euskaltegia izeneko ekimena egongo da abian Berangon, Kultur Etxeak antolatuta. 6 eta 12 urte bitartekoei zuzenduta dago, eta euskararen erabilera sustatzea dauka helburu. Horretarako, parte hartzen dutenek hainbat egiteko edukiko dituzte: alde batetik, Berangoetako Kultur Etxean egingo diren tailerrak, eta bestetik, hondartzara, igerilekuetara eta abarretara egingo diren irteerak. Eginkizun guztiak begirale biren ardurapean egingo dira, euskaraz noski. Ordutegia goizeko 11etatik eguerdiko 1etara izango da, irteeren kasuan izan ezik, eta izena emateko epea ekainaren 20ra arte egongo da zabalik (kultur etxe bietan). Aste bakarrerako izena ematen duenak 9 euro ordaindu beharko ditu, eta bi eta hiru astetarako ematen dutenek, 15 eta 18, hurrenez hurren.

ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA

Villa de Plentzia 6. zbk
Antiguo Golf - Getxo
tfnoak: 944 64 90 87
944 64 86 91
http://www.cianoplan.es

- Inprimatze eta plano kopiak.
- Kartelak kolorez eta z/b.
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua.
- Fotokopiak kolorez eta z/b.
- Era desberdinetako koadernaketak.
- Plastifikazioak.
- Fax zerbitzua.

...eta gainera, fitxategien imprimaketa!

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

KLIMATIZAZIOA
INGENIARITZA
INSTALAZIOA
MANTENIMENDUA
Otxandategi tar Simon 114
48640 Berango, Bizkaia
tel. 94 668 15 51
Taxa. 94 66829 92
e-mail: vasa@euskalnet.net

etorri
eta
ikusii!

ORIXA

liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)
Tfn.: 94 491 23 79
Algorta

**TXIBERRI
edantokia**
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15

BASARTENTA

URDULIZ

Teléfono: 946 761 128

krimea
taberna

Negubide 13
Tel. 94 463 61 82

AREETA

[herriak]

PLENTZIA

Angulen arrantzarako neurriak



Plentziako portua

Plentziako Proa kirol elkarteko kidea eta angula edo txitxardin hartzailea den Eduardo Arrategaz egon gara berbetan, angulak euren kabuz hartzen dituztenen egoeraren berri izateko. Proa kirol elkarteak jolas-ontzien inguruko elkartea da, eta beraz, elkarte honetako txitxardin hartzaileek ontzietan egiten dute arrantza. Arrantzaleak eta Eusko Jaurларitza akordio batera heldu berri dira angulen kopurua kontrolatzeko. Arrantzaleek, urtero, 60

euro balio duen lizentzia atera behar dute, Plentziako itsasadarrean aritzeko. Horrez gain, ezinbestekoa da itsasuntziko armadaorea joatea, hura baita itsasuntzian arrantza egiteko baimena duen bakarra. Aldi berean, Eusko Jaurларitzak, “Azti” fundazioarekin batera, txitxardinaren banaketaren ikerketa egingo du urtero, hauen egoera aztertu eta hurrengo urteko arrantza kanpainaren nondik norakoak argitze-ko, espezie honen bizitza arriskuan ipini

GORLIZ

Kirola barra-barra Trokaren eskutik



Trokak, abentura-kirola sustatzen duen eta Hego Euskal Herri osoan zabaldua dagoen elkarteak, Gorlizen dauka egoitzetako bat. Urte osoan hainbat kirolez gozatzeko aukera ematen dute Troka-koek: mendiko bizikleta, espeleologia, eskalada, orientazioa, raftinga, puentinga, parapentea... Sentsazio bizien maitaleek badaukate nora jo gure eskualdean. m

Trokagaz harremanean jartzeko:
94 677 42 65 / www.troka.com

Ekainak 6-22

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: aldizkaria@euskalnet.net • Tel.: 94 491 13 37 • Faxa: 94 491 58 31

ANTZERKIA

GETXO
► Historias de mujeres. Getxo Antzokian. Ekainak 8, domeka. 20:00. *Huevoycoco* taldearen eskutik. Ondoren, Getxoko Antzerki Eskolaren *Electra* sariak emango dira.
► Bakarrizketa (aktorea: Jon). Algortako Satistegi tabernan. Ekainak 12, eguena. 21:30. *Oliver Productions*-en eskutik.
► Dos chicas de azúcar. Algortako Satistegi tabernan. Ekainak 19, eguena. 21:30. *Oliver Productions*-en eskutik.

ERAKUSKETAK

ERANDIO
► Gorka Larrearen argazkiak. Josu Muruetan. Ekainaren 16tik 27ra.

GETXO
► Antezaleak elkarteko ikasleak. Algortako erakustaretoa. Ekainaren 16tik 27ra.

LEIOA
► Edurne Saizen margolanak. San Bartolomeko Kultur Aretoan. Ekainak 7 eta 8.

PLENTZIA
► Araldi emakume elkartearen margolanak. Goñi Portalen. Ekainaren 15etik 30era.

ZINEMA

BERANGO
► La ciudad de Dios. Santa Anako gaztelekuan. Ekainak 15, domeka. 17:30.

PLENTZIA
► Balzac y la joven costurera china. Goñi Portalen. Ekainak 13, barikua. 22:00.
► Mi gran boda griega. Goñi Portalen. Ekainak 20, barikua. 22:00.

MUSIKA

BARRIKA
► Rockadelica. *Golfo Norte* tabernan. Ekainak 7, zapatua. 23:00.
► Sol lagarto. *Golfo Norte* tabernan. Ekainak 14, zapatua. 23:00.
► Km. 80. *Golfo Norte* tabernan. Ekainak 21, zapatua. 23:00.

BERANGO

► MUSIKA
Mikel Erentxun, Leioako jaietan

Leioako Sanjuanak Mikel Erentxun donostiarren kontzertuaz hasiko dira aurtен. Joxe Migel Barandiaran Bekoa institutuko patioan izango da Duncan Dhu taldeko abeslari ohiaren emanaldia; 1984an hasi zen Duncan Dhuren ibilbidea, eta 1995ean banatu ziren. Haren sorreraren aurretik, Mikel Erentxunek, Los Aristogatos taldean jardun zuen abeslari. Azken urteetan bakarlari modura ibili da.

Non: Barandiaran Bekoan • **Noiz:** Ekainak 14, zapatua • **Ordua:** 00:00

► Udal musika eskolaren emanaldia. Ekintza aretoan. Ekainak 20, barikua. 18:30.

ERANDIO
► Txuma Murugarren. Karraka tabernaren aurrean. Ekainak 6. 20:00.
► Musika eskolako ikasleen akordeoi emanaldia. Josu Muruetan. Ekainak 6, barikua. 17:00.
► Kontzertu korala. Agrupación Coral Otxarkoaga, Mundakako Abesbatza eta Altzaga Abesbatza. San Agustin elizan. Ekainak 14, zapatua. 20:00.

GETXO
► Haur kantari txapelketaren Euskal Herriko finala. Algortako Biotz-Alai Abesbatza plazan. Ekainak 14, zapatua. 17:00.

SOPELA
► Rock&roll jaia. Indian Pub-en. Ekainak 6, barikua. 23:00.
► Jaialdia: Martini gaua. Indian Pub-en. Ekainak 13, barikua. 23:00.

muerte liburuaren aurkezpena. Josu Muruetako gela urdinean. Ekainak 9, astelehena. 19:30.

GETXO
► Kontularien kluba. 2002-03 denboraldiaren amaiera. Algortako Kultur Etxeko areto nagusian. Ekainak 6, barikua. 19.00.
► X. Getxotar Dantza Eguna. Ekainaren 20an (barikua), Carmen Veraren dantza akademiako ikalseen koreografiak. Ekainaren 21ean (zapatua), Ana Lara eta Ana Rosa Terceroren akademiako ikasleenak. Getxo Antzokian. Orduategiak: Carmen Vera: 19:30; Ana Lara: 12:00; Ana Rosa Tercero: 19:30.
► Korpusaren jaia. Algortako Portu Zaharrean. Ekainak 22, domeka. 12:00etan, meza; 13:00, Biotz-Alairen emanaldia; 19:00etan. Los Cinco Bilbainosen emanaldia.

GORLIZ
► Txori kantarien txapelketa. Elizako plazan. Ekainak 8, domeka.
► Egunkariaren aldeko jaia. Antzerkia, tailerrak, dantza, txistorrada, afaria... Ekainak 13, barikua. 17:30.
► II. Aerobic maratokia. Iberrebarrin. Ekainak 21, zapatua. 17:00.

URDULIZ
► Pailazoak: Kiki, Koko eta Flax.. Antsonekoa plazan. Ekainak 19, eguena. 18:30.

IRTEERAK

ERANDIO
► Artanda mendira irteera. Ekainak 15, domeka. Mendigoizaleak taldearen eskutik. Izen ematea euren egoi-tzan (Bekoa ikastetxean).

PLENTZIA
► Lekeitioko Nazioarteko Antzerki Jaialdira irteera. Uztailak 12. Izen ematea: 94 677 55 41.

BILBO
San Vicente 2 48001 BILBO
Tel: 94 424 46 25 Fax: 94 424 28 02

ONDARROA
Iparragirre 10 48700 ONDARROA
Tel: 94 683 41 41 Fax: 94 613 44 43
www.kafeantzokia.com

[albuma]



Algortako estiloa

XIX. mendearen amaieran hasi zen Algortaren zabalkundea, auzo erresidentzial modura. Etxe berriak estilo bereziaz eraiki zituzten; besteak beste, herriko harrobietatik ateratako kuartzodun harearriaren erabilerak eman zion nortasuna estilo horri. Erretratuotan islatu gura izan dugu itxura uniformeko etxebizitzaren artean bizirik dirauen Algortako estilo arkitektoniko zaharra. Goza dezazuela!

Argazkiak: **Asier Mentxaka**



Arantxa Iturbek txikitatik izan du idazle izateko guraria, eta ase ere egin du, idaztetik bizi ez bada ere. Joan den maiatzaren 1ean, Vigon, euskarazko antzezlan onenari zegokion Max saria eskuratu zuen *Ai ama!* lanagatik, izenburuko bereko narrazioan oinarritua. Jatorrizko bertsioan, Iturbek ama izateak sortarazi zizkion buruhausteen kontakizun latza egin zigun (horien “exortzismoa” ere izan zen hein batean); amatasunaren aurrean agertutako jarrera "kritiko" horrek iritzi txar bat baino gehiago sortu duela aitortzen du, baina, zelangura, Tolosan bizi den 38 urteko alegiar honek bereari eusten dio. Horiek eta gehiago esan dizkigu Arantxa Iturbe ama eta idazleak.

Arantxa Iturbe

Istorioak erditzen

Testua: **Unai Brea**

—**Irratian 14 urtez ibili ostean, eszedent-
zian zaude orain...**
—Iruditu egiten zait momentu bat iristen dela (seguruenik adinarekin izango du zerikusia) non goizez jaikitzen zaren eta pentsatzen duzun bizitzako gauzarik inportanteenak ez direla lanarekin zerikusia daukatenak. Orain txilistak jartzen ikasten ari naiz, eta ez da txantxa. 38 urte

ginen saria jasotzera, eta kazetari batek galdetu omen zidan ea zer izan nahi nuen handitan. Nik esan nion: "eskritore", eta berak esan omen zidan "hori ezin izango duzu ikasi, igual kazetaritza edo holako zerbait egin dezakezu". Gaur arte.
—**Amatasunarekin harreman berezia, txarra beharbada, daukazula leporatu dizute, *Ai ama!* idatziz geroztik.**

“Sei urterekin esan omen nuen lehen aldiz idazlea izan nahi nuela”

beteta eta ez nekien sukaldean. Helburua benetako etxeakoandrea eta ama baten moduan bizitzea zen.
—**Noiz hasi zinen idazten?**
—Sei urterekin, idazten ikasi nuenean. Oso oroitzapen ahula daukat, baina etxean kontatu didatena da sei urterekin irabazi nuela eskola arteko lehiaketa bat. Ipuin bat idatzi, irabazi, eta orduan esan omen nuen idazlea izan nahi nuela. Beti kontatzen dut pasadizu bera: Tolosara etorri

—Egia da. Nik, ez txikitan ez gaztetxotan, ez nuen esaten umerik izango nuenik, ez nuelako sekula feeling-ik izan umeekin. Oso bizitza beteak neukan, eta pentsatzen nuen umeak izatea ez zettorrela nirekin. Ez nuen beharrik sentitzen. Jendeak galdetzen zidan: "Zuk noizko?", eta amorratzen nintzen. "Nik noizko? Nik ez dut umerik izango!". Hori oso garbi neukan. Egun batetik bestera erabaki nuen ama izatea eta egun batetik bestera diodanean egun bate-

tik bestera esan nahi dut. Ez diot inoiz esplikaziorik aurkitu, hormonala izan ezik. Hortik aurrera, "engainatua" sentitu nintzen: jende guztiak adierazten zidan zoriontsu izan behar nuela ume bat izateagatik, eta ni ez nintzen batere zoriontsu sentitzen, ez horregatik bakarrik behintzat. Oso txarrak izan ziren niretzat bai haurdunaldia bai haurra jaio ondorengo lehen hilabeteak. Ez nuen ukatzen ume polita neukala, eta inportantea zela... baina ez nuen sentitzen jendeak esaten duen zorion mugagabe hori.
—***Ai ama!* idaztea terapia izan zen?**
—Bai, bi zentzutan gainera. Batetik, adierazi nituelako adierazi nahi nituen alde txar guztiak, bata besteren atzetik, eta bestalde, egun batzuk niretzat hartu nituelako. Oso terapeutikoa izan zen.
—**Idaztea eta ama izatea ondo ezkontzen dira? Idazlearen askatasunezko irudi bohemio hori hain dago zabalduta...**
—Nik, txikitan, amets egiten nuen idazle izatearekin, eta beti hiru gauza irudikatzen nituen: kalean sonbreruz jantzita ibiliko



Argia astekaria

“Nik, ez txikitan ez gaztetxotan, ez nuen esaten umerik izango nuenik”

nintzela, atiko batean biziko nintzela eta katua edukiko nuela. Hiruretatik bat ere ez da bete...
—...ez zara Arantxa Highsmith, beraz...
—(Barre) Ez. Eta umea izatea orduak eskatzen dituen edozer gauzarekin ezkontzea zaila da. Uste dut hori onartzea kostatzen zaidala. Hainbeste gustatzen zait nire ordenagailuaren aurrean jarri eta lau ordu jarraian bakarrik egotea! Jakina, hori bukatu egin da, duela bost urte bukatu zen.
—Max saria jasotzean Egunkariaren aldeko berba batzuk esan zenituen. Lehenago Fermin Muguruzak jasotakoaren antzeko erantzuna jasotzea espero zenuen?
—Batetik, ez nuen inondik inora irabazterik espero, izendatuta zeuden besteek antzerki munduan askoz eskarmentu handiago zeukatelako. Baina badaezpada bi hitz prestatu nituen. Eta pentsatu nuen: "Txistu egiten badidate, amaieran esango dut uste nuela hain jende solidarioa nire mezua ulertzeko gauza izango zela, baina ikusten dudala ez dela posible". Zorionez, txalo egin zuten. Bestela, ez dakit aterako nuen Ferminnek atera zuen adorea. m

“*Ai, ama!*-n ama izatearen alde txar guztiak adierazi nituen”

Kurrikuluma

Idazteko grinak bultzatu zuen kazetaritza, baina azkenean mikrofono aurrean gauzatu zitzaion "istorio-kontalari izateko nahia". Euskadi Irratian luzez jardun du lanuzte baimena eskatu arte, *Goizean behin* saioan. Ez lanak ez ama izateak, hala ere, ez dute lortu Arantxari idazteko denbora guztiz lapurtzea.
Argitaratutako lanak:
• *Ezer baino lehen*. 1992. Ipuinak.
• *Lehenago zen berandu*. 1995. Ipuinak.
• *Ai, ama!* 1999.
• *Nik eserita egiten dut, eta zer?* 2001.
• *Beldurtia naiz, eta zer?* 2001.
• *Norak suhiltzaile izan nahi du*. 2003.

Azkeneko hirurak umeentzako ipuinak dira.



Mareak utzitako marraren inguruan galipot zati txiker asko topa daiteke

Urak dakarrena...

Ekainaren 15ean azken hamarkadetako bainu-denboraldirik bereziena hasiko da gure hondartzetan. Instituzioek arriskurik ez dagoela diote; beste batzuek, neurria astakeria galanta dela. Edozelan, hondartzazaleen arazo nagusia ez da autoa ezin aparkatzea izango. Orain, arazoa fuel-olioa da, *Prestige*-tik etorritako hamaika zalantza dira. Gu maiatzeko eguen goiz eguzkitsu batean joan ginen hondartzara, garbiketan dihardutenakaz egotera.

Testua: **Unai Brea** / Argazkiak: **Asier Mentxaka**

Goizeko 9ak. Larrabasterrako Barinatxe hondartzako inguruak lasai daude; udako zapatu arratsalde sargoritsueta datozen jende oldeen zalapartagaz zerikusirik ez. Goiko talaiaetik, eguzkia hartzen etorri diren hiru despistatuez gain, behargin talde bi ikus ditzakegu. Bata haitzetan dabil, itsatsitako fuela kentzen; besteak hondartza alderik alde txukuntzen dihardu, mareak utzitako marraren gainetik. Aldapan behera, bigarren taldearengana goaz lehenbizi.

Hondartzaren garbiketaz arduratz

den enpresaren bost beharginak agurtu ditugu. “Eskuz eta eskuarez batzen dugu galipota”, esplikatu digute hare lehor eta bus-tiaren arteko mugaren gainetik goazen bi-tartean, “bilatu egin behar da, eta adi egon”.

Ez dagoela dirudi, baina badago. Garbitzaileen esku trebeak harea mugitzen hasi dira, ordura arte guretzat ezkutatuta egon diren fuel-bolatxo txikiak agertaraziz.

“Ikusten? Hauetako bola txiki mordoa dago”, dioskue. Galbahe bategaz garbitzen dute harea, hura eta galipot bolatxo txiki-txikiak bereizteko. “Azken boladan batzuk hain txikiak dira galbahea ere zeharkatzen dutela”.

Badago zati handiagorik ere. “Distin-gatik ezagutzen ditugu”, azaldu dute, “hango hura adibidez ‘galleta’ bat da segurantzean”. Hori esan eta olatuak apurtzen diren lekura

«Lehen bistadizoan ikusi ez arren, galipot bolatxoak nongura daude»



doa garbitzailea. Bueltan, 10-15 zentime-troko zabalerako fuel zatia dakar eskuan. “Urtarrilean gehiago zeuden”, azaldu digu, “eta handiagoak ziren, metro batekoak edo”.

Ekainaren 15ean zabalduko ei dute bainu-denboraldia, urtero legez. “Zabaldu-ko dutela? Jendea orain ere badator. Eta da-torrena”, gehitu dute, “ondorio guztiak onar-tuta etor dadila; hau zikin dago oraindik, eta ipar-haizea edota ekaitza dagoen bakoitzean fuel-olioz betetzen da hondartza. Ez da neurri egokia hondartzak berriro irekitzea, hau luzerako egongo da-eta txarto”.

Hondartzako ertz batean, beste langile talde bat haitzei itsatsitako galipota kentzen dabil, hareaz nahastutako eta presio itzelean botatuko ur oso beroa erabiliz. Alde egin aurretik, hurbildu egin gatzazkie. Harriak nahiko txukun uzten dituzte, baina nora doa harritik kendutako galipota? “Harean geratzen da noski”, dio batek, atsekabez. Egunero ikusten duena ikusita, ez da harritzekoa kopeta belztuta edukitea. m



1- Garbiketa enpresek lantaldeak handitu behar izan dituzte fuela heldu denetik. 2- Galipot asko duten harriak hondartzetatik kanpo eroaten dituzte. 3- Hildako hegazi asko agertu dira, batez ere urte hasieran. 4- Harriak garbitzeko erabiltzen den ura 90 gradutan dago. 5- Guztiek ez diote jaramonik egiten hodartzara ez joateko gomendioari. 6- Galipotak dena lohitzten du. 7- Fuela ez da itsasoak dakarren hondakin bakarra. 8- Erabaki ona da oinetakoak janzte

Argazkiok, Barinatxen eta Arriateran hartuta daude

Denak garaile omen

Hauteskundeen emaitzak

Maiatzaren 25eko hauteskundeak erdi ahaztuta edukiko dituzue beharbada. Guk, hala ere, Uribe Kostan gertatutakoaren berri zehatza zuenganatu gura izan dugu. Hona hemen, beraz, hauteskundeen emaitzak, herriz herri (udal hauteskundeei dagozkienak baino ez ditugu kontuan hartu). Ohi denez, gure eskualdeak monokromo samarra izaten jarraitzen du; alkatetza guztiak EAJ alderdiak bereganatu ditu, herri batzuetan EAgaz batera eta besteetan bakarrik. Bestetik, ofizialki baliobakoak diren botoen kasuan, ezker abertzaleko plataformei dagozkien kopurua adierazi dugu. Datu hori hauteskunde hauetarako propio sortu den Berme Batzordetik hartu dugu.

GETXO				
	Botoak		Zinegotziak	
	2003	1999	2003	1999
EA-EAJ	20.280	17.512	11	11
PP	16.106	15.559	9	9
PSE	6.499	4.643	3	2
EB	3.511	1.946	2	0
Aralar	1.321	-	-	-
Baliogabeak	2.968	258	-	-
<i>*Getxo Bizia</i>	2.756	-	-	-
Errolda: 69.379 / Abstentzioa: %24,35				

LEIOA				
	Botoak		Zinegotziak	
	2003	1999	2003	1999
EA-EAJ	8.047	5.074	11	9
PSE	3.097	2.661	4	4
PP	2.747	2.602	4	4
EB	1.507	1.071	2	1
Besterik	375	0	-	-
Baliogabeak	982	123	-	-
<i>*Abian</i>	832	-	-	-
Errolda: 23.637 / Abstentzioa: %28,21				

ERANDIO				
	Botoak		Zinegotziak	
	2003	1999	2003	1999
EA-EAJ	6.636	4.632	12	9
PSE	2.835	2.560	5	5
PP	1.561	1.509	3	3
EB	1.306	672	1	1
Baliogabeak	1.025	22	-	-
<i>*Erandioztarrak</i>	914	-	-	-
Errolda: 19.496 / Abstentzioa: %31,92				

BERANGO				
	Botoak		Zinegotziak	
	2003	1999	2003	1999
EA-EAJ	1.849	1.143	8	6
PP	478	373	2	1
PSE	446	278	2	1
EB	255	154	1	0
Baliogabeak	398	43	-	-
<i>*Hain Ederra</i>	369	-	-	-
Errolda: 4.674 / Abstentzioa: %26,02				

SOPELA				
	Botoak		Zinegotziak	
	2003	1999	2003	1999
EAJ	2.846	2.060	9	6
S.AURRERA	946	0	3	0
EB	926	439	3	1
PSE	616	498	1	1
PP	561	521	1	1
EA	243	217	0	0
Baliogabeak	74	64	-	-
Errolda: 8.685 / Abstentzioa: %27,54				

URDULIZ				
	Botoak		Zinegotziak	
	2003	1999	2003	1999
EAJ	950	727	7	6
EA	256	151	2	1
PP	153	153	1	1
PSE	195	154	1	1
EB	121	47	0	0
Baliogabeak	313	24	-	-
<i>*Urdulizen bagara</i>	296	-	-	-
Errolda: 2.653 / Abstentzioa: %24,20				

PLENTZIA				
	Botoak		Zinegotziak	
	2003	1999	2003	1999
EAJ	1.279	969	7	6
Indenpe.	372	299	2	1
EA	223	148	1	1
PP	222	172	1	1
PSE	78	76	0	0
EB	90	38	0	0
Baliogabeak	246	18	-	-
<i>*Haize berriak</i>	225	-	-	-
Errolda: 3.140 / Abstentzioa: %19,27				

BARRIKA				
	Botoak		Zinegotziak	
	2003	1999	2003	1999
EAJ	452	314	7	2
PP	77	53	1	1
PSE	63	29	1	0
EA	-	37	0	0
Baliogabeak	160	13	-	-
<i>*Barrika Baietz</i>	154	-	-	-

Errolda: 1.045 / Abstentzioa: %25,93

GORLIZ				
	Botoak		Zinegotziak	
	2003	1999	2003	1999
EA-EAJ	1.581	1.202	7	6
Indepen.	604	507	3	3
PP	199	164	1	0
EB	156	-	0	0
PSE	115	46	0	0
Baliogabeak	270	23	-	-
<i>*Gorliz Aurrera</i>	245	-	-	-

Errolda: 3.761 / Abstentzioa: %21,35

LEMOIZ				
	Botoak		Zinegotziak	
	2003	1999	2003	1999
EAJ	413	291	7	-
PP	22	17	0	0
PSE	14	-	0	0
EA	0	9	0	0
Baliogabeak	134	8	-	-
<i>*Ipar Haizea</i>	129	-	-	-

Errolda: 754 / Abstentzioa: %19,36

Bizkaiko Foru Aldundiak, Lan eta Trebakuntza Sailaren bitartez, Lemoizko zentral nuklearra dagoen lekuan Atlantis ize-neko guneko turistikoa paratzeko asmoa agertu du. Hori dela eta, berbagai dugu berriro ia ahaztuta geneukan zentral ospetsua, aspaldi energia nuklearraren kanposantu bihurtua. Aldundira jo dugu, Atlantis delakoaren berri zehatzagoa jasotzeko, eta bertatik argitu dizkigute proiektu horren nondik norakoak. Arazoa hori baino korapilotsuagoa da ordea, Aldundiak ez daukalako eskumenik zentralari dagokionez. Berau eraikita dagoen lurra Espainiako Gobernuarena da, eta gainera, Iberdrolak ere badauka zer esanik kontu honetan. Biei itaundu diegu zentralaren etorkizunaz, baina ez dugu erantzun argigarririk jaso. Azkenik, hainbat talde ekologistaren iritzia bildu dugu; oro har, ez dute bat egiten Bizkaiko Foru Aldundiaren proposamenagaz. Gatazka berri baten atarian ote gaude?

Museo bat zentrallean

Atlantis proiektua

Testua: **Unai Brea** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

Joan den mendeko 80ko hamarkadan borroka askoren sorburu izan zen Lemoizko zentral nuklearra. Azkenik, geldiarazi egin zen, eta harrezkeroztik oroigarri hutsean lotu zen, Armintza eta Bakioaren arteko itsasertz zoragarrian lo, paisaiaren erdian bitxikeria desatsegina besterik ez. Hogei urte baino gehiago igaro dira, eta orain, Basordako eraikintzarrak garai baten eduki zuen protagonismoaren zati bat berreskuratzeko bidean da. Horren “errua” Bizkaiko Foru Aldundiak publiko egindako egitasmo batena da: Atlantis hiria.

Sabin Arana dugu Bizkaiko Lan eta Trebakuntza diputatua. Berak zuzentzen duen sailak proposatu du Atlantis aurre-

proiektua, *“zientzia, teknologia, energia eta ingurugiroan oinarritutako espazioa”* azken batean. Helburu nagusia, diputatuaren esanetan, turismoa erakartzea da. *“Atlantisek eragin turistiko nabarmena edukiko lukeela uste dugu”*, dio Aranak, *“artearen esparruan dagoen eskaintza osatuz”*. Bestela esanda, Bizkaiko amu turistiko nagusia den Guggenheimek artearen arloan opezten duena, Atlantisek zientziarenean opetziko luke. Horrela, *“Bizkaira datozen turistak beste gau batez geratuko lirateke berton, hurrengo egunean Lemoizera joan ahal izateko”*. Izan ere, Atlantis egun osoa igarotzeko gunea izatea aurreikusi dute beraren sustatzaileek.


Helburu nagusi horrek beste helburu

osagarri bat edukiko luke, EAko diputatuak azaldu duenez: *“[Gure asmoen] beste ardatz garrantzitsu bat trebakuntzarako espazioa sortzea da. Trebakuntza, energiaren arloan. Lemoizen, dagoeneko, energia nuklearraren erakusgarria daukagu, eta hori beste energia mota batzuez osatuko genuke: eolikoa, eguzkiarena... beti ere helburu didaktiko batekin”*. Aranak gaineratu duenez, Valentzian duela urte gutxi zabalduetako arte eta zientzien hiriaren arrakastak zerikusit handia eduki du Atlantisen tankerako ideia bat garatzeko orduan.

Nestor Basterretxearen eraikina

Zentral nuklearra balizko bisitarientzat erakargarriago bihurtzeko (berez ez dauka balio estetiko handirik), Atlantis aurreproiektuaren arduradunek zentralaren eraikina beste eraikin batez inguratzea

«Atlantis hiriaren helburu nagusia turismoa erakartzea da»



proposatzen dute. Nestor Basterretxea eskultore bermeotarrak diseinatu du estalkia, eta guk berbaz azaltzea baino, hobe da zuek begiz ikustea. Atlantisen nondik norakoen berri ematen duen web orrian (www.atlantis-eus.org) aurkituko dituzue proiektu horren irudiak. Zentralak berak gaur dagoen bezala jarraituko luke, baina kanpotik ez litzateke ikusiko. *“Estalki horren barruan sartuko bagenu, zentrala museo-ale bihurtuko genuke”*, dio Sabin Aranak.

Atlantis hiriak 50.000 lagunuen bisita hartuko luke urtero, Foru Aldundiaren kalkuluen arabera. Guggenheimek hartzen duenaren erdia, hain zuzen ere. Horrek, jakina, gutxieneko azpiegitura eskatzen du, eta horretaz ere berba egin digu Aranak: *“Ez genuke hotelik egingo, ingurumenean ahalik eta eragin txikiena izateko. Bizkaian badago hotel nahikorik,*

delako metroa) edo hoteletatik, eta kotxez ere joan daiteke. Lur eremu zabalak daude eta ez litzateke aparlekuak egokitzeko arazorik egongo”.

Iberdrola eta Madrilgo Gobernua

Bat-batean, Lemoizekiko interesa piztu da. Hala adierazi dute prentsan argitaratutako informazio batzuek, eta hala uste du Sabin Aranak ere: *“Bazirudien hurrengo 50 urtean inork ez zuela inguru hori ikutuko, eta orain gure proposamenak mugimendua sortu du”*. Hainbat konturen gainean egin da berba azken hileotan. Besteak beste, ziklo konbinatuko zentrala eraikitzeke aukera aipatu da (Atlantis baztertu barik; biak uztartuta egongo lirateke). Hain zuzen, Iberdrola izango litzateke, zenbait komunikabidetan esan denez, proiektu hori gauzatu gura lukeena.

UK Iberdrolagaz harremanean jarri

Zentralaren ugazabakaz ere berba egin dugu, baina ezer gutxi argitu digute. Espainiako Energiaren Idazkaritzako iturriek esan digutenez, Atlantis proiektua ezagutzen dute baina oraingoz ez daukate inongo iritzirik haren gainean, argibide gehiagoren faltan ei daudelako.

Kontuak kontu, ezin da ezer ziurtzat jo. Atlantis proiektua hor dago, baina Aldundiak ez dauka eskuduntzarik aurrera ateratzeko, momentuz. *“Atlantis egiteko asmoa ikusi eta gero nork bere proiektua gauzatu nahi du bertan”*, kexu da Sabin Arana, *“dena dela, espazio hori oso hondatuta dago eta azkenean baliteke zera esan behar izatea: ‘Guk ezin dugu Atlantis egin baina zuek ezin duzue leku hori dagoen egoeran eduki’*. Beste kasu batzuetan, legeak behartu egiten du ingurune degradatuak berreskuratzera”.

“Turismorako azpegiturarik ez”

Atlantisen gainean itaundu diegu Ekologistak Martxan eta Txipio Bai talde ekologistei. Lehenbizikoaren kide den Iñaki Barcenaren iritziz, *“Lemoizko zentrala ikutu ere ez litzateke egin behar. Gera dadila dagoen bezala, gizakion erokeriaren monumentu modura, eta apurka naturak berak berreskuratuko du ingurune hori”*. Ekologistak Martxanentzat, Atlantis proiektuak interesik eduki lezake, baina hiri baten barruan beti ere, eta ez Basordan. *“Atlantis aurrera ateratzeak azpiegitura berriak, errepide berriak eta abarrak egin beharra ekarriko luke, non eta Bizkaiko itsasertzean. Hobe litzateke ingurune hori babestea”*.

Antzeko iritzia dauka Txipio Bai taldeko Joserra Ortizek: *“Turismorako beharrezkoa den azpiegiturarik ez egitearen alde gaude”*. Dena dela, proiektua prentsaren bitartez baino ez dutela ezagutzen gaineratu du Ortizek, eta beraz ezin duela balorazio sakonik egin. Edozein kasutan, *“ez zentral termikorik eta ez energia sortzeko bestelako konturik ez dezatela ipini”* diosku, *“ez behintzat ingurunea kaltetzen duten bitartekoak erabilita”*. m

«Ekologistak Basorda inguruan gune turistiko bat sortzearen aurka daude»

denak Lemoizetik ordu erdira edo gehienez ordubetera, eta beraz dagoena aprobe txatu beharko litzateke”. Eguneroko jana beste kontu bat da, ordea: *“Jatetxe batzuk egin beharko lirateke, Atlantisen bertan. Bestalde, kilometro batera-edo badaude baserri bi: horiek ere atondu daitezke jatetxe izateko”*. Eta zelan ailegatu? *“Autobusak ipini beharko lirateke, Plentziatik (han amaitzen*

da, eta jaso dugun erantzuna bestelakoa izan da. Javier Zalbidea prentsa-buruak esan digunez, *“Iberdrolak ez dauka Lemoizeko zentral nuklearraz ezer esateko, lur hori ez delako gurea, Industria Ministerioarena baizik”*. Zalbideak adierazi duenez, enpresak 2006ra arte daukan plan estrategikoan ez dago zentralagaz zerikusia daukan ezer aurrekusita.

Zortzi urteko gatazka latza

1974an hasi ziren Lemoizko zentral nuklearra eraikitzen; hautsak harrotu zituen eta ondorio latz bat baino gehiago ekarri zuen borroka luze baten abiapuntua izan zen hura. Zentralaren aurkako manifestazio eta adierazpen ugari egin ziren, eta ETAK ekintza sorta luze bati ekin zion. Guztira, lau hilotz utzi zituen gatazkak: ETAk berak hildako zentraleko arduradun bi, ETAk kide bat eta manifestazio baten parte hartzen ari zen Gladys del Estal, Goardia Zibilak tiroz hila.

Azkenean, 1982an zentrala itxi egin zen, baina hura behin-behineko erabakia izan zen. Behin betiko ixtea ez zen 1994 arte gertatu. Dena dela, Iberduerok 1983tik zeuzkan lanak bertan behera utzita.

I.E.S. URIBE-KOSTA B.H.I.

E.S.O.

- * Modelos: A, B, y D
- * Transporte escolar

BACHILLERATOS

- * Modelos: A, B, y D
- * Modalidades:
- Ciencias de la Naturaleza y la Salud
- Ciencias Sociales y Humanidades



D.B.H.

- * Ereduak: A, B, eta D
- * Garraioa eta jantokia

BATXILERGOAK

- * Ereduak: A eta D
- * Modalitateak:
- Natur eta Osasun Zientziak
- Giza eta Gizarte Zientziak

Heziketa-zikloak

ERDI-MAILAKO ZIKLOA

ADMINISTRAZIO-GESTIOA

A eredia

GOI-MAILAKO ZIKLOA

INFORMAZIO ETA

MERKATURAKETA TURISTIKOAK

Aurrematrikula Heziketa-Zikloetan: ekainaren 2tik 11ra

Batxilergo eta Heziketa-Zikloentzako matrikula-epea: ekainaren 30etik uztailaren 4a arte

Gatzamina kalea z/g. Tel. : 94 677 00 82 • Faxa: 94 677 08 50

Plentzia

UMEENTZAKO UDALEKU IREKIAK EUSKARAZ

BIZARRA LEPOAN EUSKARA ELKARTEAK
uztailean zehar udaleku irekiak prestatu ditu
***Bapiruke* egitasmoaren barnean,**
6-12 urte bitarteko ume euskaldunentzat

• **Non:** J.B. Zabala eskolan

• **Txanda 1:** ekainaren 30etik uztailaren 11era arte / Txanda 2: uztailaren 14tik uztailaren 24ra

• **Ordutegia.** Goizez 9:00etatik 13:30ak arte / Arratsaldez 15:30etatik 18:00ak arte

• **Prezioa.** Bazkideek, 75 euro / Ez bazkideek, 100 euro

• **Izena emateko epea:** ekainaren 18ra arte. bizarralepoan@euskalnet.net / 94 491 43 57

BaPiRuKe

zineeskola

Oskar Fernández

Muntatzea zinemaren oinarria

Film baten aurrean gaudenean, film bat zinema-aretoan ikusten ari garenean alegia, segur aski ez gara konturatuko edo ezin izango gara filmaren muntatzeak duen funtsezko garrantziaz ohartu. Idazkitxo honen izenburuak esaten duen legez, zinemagintzan, irudiz irudi istorioak garatu ahal izateko garrantzi gehien duen lana, muntatzea da, zalantzarik gabe. Beraz, ikus dezagun nondik datorren edo zergatik den hain garrantzitsua: Hasteko, kontuan hartu beharko genuke film bat ez dela era kronologikoan, guk gero pantailan ikusiko dugun moduan, grabatzen. Esaterako, pantailan ikusten dugun bosgarren eszena beharbada bigarrena izan da grabazioan. Filmek garatzen dituzten istorioetan pertsona baten bizitza edo belaualdi baten gorabeherak ispiilatzen dira: urte luzetako kontuak. Baina jakina, film baten iraupena gehienez lau ordukoa izan daiteke, eta beraz, nahi eta nahi ez elipsiak egin behar dira. Era honetakoak elipsi tenporalak deitzen dira. Adibidez, plano batean ume txiki bat ikusiko dugu eta hurrengo planoan leku bereberean gazte bat edo pertsona heldu bat ikusiko dugu. Gaur egun, denok denbora igaro duela ulertuko dugu. Kontua da, bi plano hauek ez dira elkarren segidan grabatuko. Zein bere aldetik egingo dira, eta gero muntaketa-mahaian elkartuko. Era antzekoan jokatzen da eszena paraleloen kasuan: Demagun plano batzuetan protagonistaren semea arrisku bizian dagoela: ur-jauzi baten ondoan ikusten dugu eta hurrengo planoetan aita ikusten dugu, semearen bila doala. Hurrengo planoan umea jausteko zorian agertuko zaigu eta honen atzean aita ailegatzeaz dagoela. Plano hauek guztiak zein bere aldetik grabatzen dira, muntatzeko orduan bata bestearekin tartekatzeko. Muntatzea ikus-entzunezko hizkuntzaren oinarrizko baliabidea dela esan daiteke beraz. Sergei Eisenstein zuzendari handia (1898-1948) benetako maisua izan zen arlo honetan. 4

Euskal zinearen ondarea

Euskadiko Filmategiak hainbat pelikula esanguratsuren **negatiboak berreskuratu** ditu

Nestor Basterretxeak eta Fernando Larrukertek 1968an egindako *Amalur*, Rafael Treku zenaren *Navarra agreste* (1972), eta Juanma Bajo Ulloaren *El reino de Víctor* (1988) filmen negatibo originalak berreskuratu berri ditu, besteak beste, Euskadiko Filmategiak. Negatiboak Bartzelonako “Cinematiraje Riera” eta “Laboratorios Foto-film”-ek zeuzkaten, baina bi enpresok porrot egin zuten 1999an, eta Filmategiak berreskuratu ahal izan ditu, euskal ondarearen zati dira-eta.

“Azkenean aurrera egin du gure eskaerak, baina hiru urteko epai-prozesu konapilatsua behar izan dugu filmak berreskuratzeko”. Hitzok Martin Ibarbia, Euskadiko Filmategiaren presidentea esan dizkigu. Berreskuratutako beste filmen artean, Fernando

«25. urteurren honetan aro berri bati ekiteko prest dago Filmategia»

Larrukertek eta Juan Ignacio Lorentek 1981ean egin zuten *Namasté, chamo longmu* (*Agur Everest*) dago, baita Rafael Treku zinemagileak “Ormis Films” ekoiztzearekin egin zituen pelikula asko ere: *La marisma* (1966), *Tiernas de Doñana* (1969), *Las encantadas* (1974), *El Rabil* (*Hegats Horia*, 1984) edo *Mar adentro* (*Itsasok bizi nahi dute*, 1986).

Euskadiko Filmategia 1978ko maiatza-



Martin Ibarbia, Filmategiaren presidentea

ren 1ean sortu eta urte bereko ekainaren 13-an legezatu zen; beraz, 25 urte betetzen ditu aurton Donostian dagoen erakundeak: *“Urtemugaren ospakizunetan murgilduta gabiltza. Hori dela eta, emanaldiak egingo ditugu EAEko hiru hiriburuetan”.*

Honekin, Filmategiak aro berri bati emango dio hasiera: *“Laster 5.000 metro karratuko egoitza edukiko dugu Donostiako antzinako gas-fabrian. Izen juridikoa ere aldatzeko gogoia daukagu: Euskal Filmategia”.* Martin Ibarbia berak proiektuaren nondik norako guztiak azaldu berri ditu Helsinkin ekainaren 6an, *“eta horrek horrelako nazioarteko onarpena ekarriko dio Filmategiari”.* m

Ez galdu > Herencia (Paula Hernández)



Itsaso urdin eta zabalaren bestaldetik, Argentinatik, film berri, interesgarri eta hunkigarri bat heldu zaigu gure zinema-aretoetara. Emakume bat izan du zuzendari: Paula Hernández. Film hau bere lehenengo luzea da eta melodrama motako istorioa kontatzen digu. Argentinako hiriburuan, bi pertsonak, biak atzeritarrak, topo egiten dute jantoki batean ustekabean. Guztiz elkarren ezezagun izan arren, bat egiten ditu ezaugarri berezi eta erakargarri batek: biak maitasunaren bila dabiltzala. Bata gizon gaztea da eta bestea italiar emakume bat. Bere lehen lana den film honen bidez, Paula Hernándezek Argentinako zinegintzak bizi duen une aberats eta interesgarria erakusten digu; izan ere, maisuak ez zaizkio falta: Adolfo Aristarain, Fabian Bielinsky, Juan José Campanella,...



Proyecto Secreto taldeak Brixton Records-ekin atera du bere diskoa

Brixton Records-en uzta

Erromoko diskoetxeak **hiru lan** plazaratu berri ditu

Katalogo txiki baina finari esker, Brixton Records txunditzeko moduko oihartzuna lortzen dabil nazioarteko esparruan. Jamaikako soinuak soilik espezialitate dituen euskal diskoetxe bakarra dugu, eta duela hiruzpalau urte sortu zen Erromon; Kresaltxu kalean aurkituko dugu.

Egunotan hiru disko kaleratu ditu: *Brixton Cats & The Reggae Boys* izenekoak, eta Proyecto Secreto eta NY Ska Jazz Ensemble taldeenak ere. Lehenengoak, Brixton Records-en jarduera laburbiltzen du. 2001ean plazaratu zen *Brixton Cats & The Rudies* diskoaren jarraipena da, eta 9 taldek egindako 16 abesti dauzka entzungai. Bestalde, Proyecto Secreto

Belgikara bizitzera joan ziren musikari txiletarrez osatuta dago. NY Ska Jazz Ensemble, berriz, New Yorkeko taldea da (bere izenak ondo adierazten duen bezala), eta Bilbon eta Oiartzunen joko dute ekainaren 12an eta 13an, hurrenez hurren.

Brixton Records-en aurtongo uzta askoz oparoagoa izango da. Ekainean, Dave Hillyard-en *United front* eta Alberto Tarin-en *Jazzin' reggae* diskoak plazaratuko ditu; eta urtea bukatu aurretik, Urdulizeko Ambassah & The Dub Generation, Bilboko Akatz eta Lone Ark taldeen lanak ateratzea espero du diskoetxeak. m

Harremanetarako: 94 464 81 04

diskoak

Elephant
The White Stripes
V2 Records



Punta-puntako taldea dugu oraintxe bertan: gehien saltzen duena da (lehen postua lortu du 17 herrialdetan), eta blues-rocka birsortu duela diote batzuek. Jack eta Meg White senar-emazteek osatzen dute The White Stripes. Detroit-ekoak dira, eta *Elephant* dute laugarren diskoa; 15 abesti dauzka, onena “Seven nation Army”.

Meteora
Linkin Park
Warner



AEBetako seikote honen lehen diskoak (*Hybrid theory* izenekoak) 15 milioi ale saldu zituen, eta 2001eko salduena izan zen; beraz, bigarren lan honetan ez dute formula gehiagi aldatu (zertarako?). Chester Bennington-en ahots rockeroa eta Mike Shinodaren rap-a dira *Meteora*-ren soinuaren funtsa. 12 abesti labor baina indartsu ditu.

Itsasoz beteriko mugetan
Su ta Gar
Gor



Atlaseko haurrei Aitor Gorosabelek ateratako argazkiak apaintzen du Eibarko taldearen disko berriaren azal urdina. Zuzengabekeriaren aurkako aldarrikapenez beterik dago, indar handiko gitarrez girotua. Baina maitasunak ere badu tartetxoa 12 abestien artean.

Zuzenean >

Badator Getxo&Blues03



Argazkian, Phillip Walker musikaria

Erromoko Santa Eugenia plazako zaharberritze lanak direla-eta, Portu Zaharrean egingo da aurten Getxoko XV. Nazioarteko Blues Jaialdia. Algotako auzo arrantzaleak nazioarteko puntako hiru gitarra-jole hartuko ditu ekainean Kultur Etxearen eskutik: Raimundo Amador, Phillip Walker eta Tinsley Ellis. Jaialdiari Elgoibarko Arima Beltza taldearen euskarazko blues doinuek emango diote hasiera. Egun berean, Amadorrekin batera Ñaco Goñi y los Bluescavidas-eko lagunek joko dute. Emanaldi guztietarako sarrera doan izango da. Alboraezineko hitzordua.

Egitaraua:

- Ekainak 13: Arima Beltza, Ñaco Goñi y los Bluescavidas eta Raimundo Amador.
- Ekainak 14: The Blues Devils eta Phillip Walker Band.
- Ekainak 15: Tinsley Ellis Blues Band.

Emanaldi guztiak Algotako Portu Zaharrean, 21:30

esaterik**badut**

Esti Ezkerra

Ezin gara
Ama Birjina izan

Hau ez da eguneroko bat. Hobe da gauzak hasieratik argi uztea, gaizki ulertzerik egon ez dadin. Neure orri artean kuxkuxean ibili zarela, eta mesedez, gezurrik ez esateko diozu begi errukarriz. Bai, arrazoi duzu, testuek eguneroko traza dute, baina ez dakit zergatik den horrela. Demagun neuk ere, Iris Murdochen *The sea* liburuko protagonistak bezala, aspaldiko kontuak gogora ekartzeko beharra dudala. Baina ni ez naiz Charles Arrowby, ezin dut ezagutzen ez dudan antzerki munduaz idatzi, ez dut munduaren amaiera arte jarraituko nauen amoranterik izan. Ez naiz Charles Arrowby, eta, hala ere, beraren antzera itsasoaren ondoan, ia olatuekin nahasten den herrikka batean hartu nahiko nuke erretiroa. Eta idazketara dedikatu egun osoa. Gertaturikoa eta gerta zitekeena aztertzen. Hauteskundeen ostean, telebistakoek emaitzak analizatzeko gonbidatzen dituzten adituen antzera. Kate batetik bestera, zuritik beltzera. Azterketek zerbaiterako balioko balute, gaitzerdi! Bergerrek *Gure garaiko pintorea (A painter of our time)* liburuan erabiltzen duen metafora datorkit gogora. Errealitatea gizon zakarra den arren, badira seme-alabak izaten jarraitzen duten emakumeak. Badakite seme-alaba horiek esker txarrekoak aterako zaizkiela, ama abandonatu eta berak eraikitako mundua zapuztu dezaketela. Baina berdin-berdin edukiko dituzte. Badira, bestalde, halako erantzukizun bati ezin euts diezaioketenak. Hori bai, eroso asko sentituko dira beren behatzaile postuan, beti aholkuak ematen horrek kostu berezirik ez dakarkien bitartean. Argi dago Bergerrek zeinen alde jotzen duen, ezta? Bere esanetan, ezin gara Ama Birjinak izan. Istorio honek jarraipena izango du. 4

Poesiaren **mugak** gaindituz

Getxoko **Transpoem** kultur taldeak *Este es oeste* **entzunezko liburua** argitaratu du

Este es oeste izenburuko liburua eta CDa Fernando Pessoa eta Omar Jayyam-en olerkietan dago oinarrituta; testuok Miguel Gómez Vaquero 30 urteko filologo eta irakasle algortarrak aukeratu ditu. Bestalde, Marco Borge getxoztarrak eta Madrilen jaioetako Jaime Ortegak poesiei laguntzen dieten musika eta irudiak egin dituzte, hurrenez hurren. Hirurek Transpoem izeneko kultur taldea osatzen dute.

Argazkian, taldeko hiru kideak



P. URBESTI

Hitzak, soinuak eta irudiak elkartzen dituen lan hau Getxoko Liburu Azokan aurkeztu zuten, eta 16 euroren truke ekitaldi horretan parte hartu zuten herriko liburu-denda guztietan dago salgai; Bilboko “Librería Verdes” eta “La Casa del Libro” liburu-dendetan ere eros daiteke.

“*Pessoa da gaurko Europaren egilerik adierazgarriena*”, Miguel Vaquerok azaldu digunez, “*eta kalitate handiena daukana*”. *Este es oeste*-n Portugalgo idazleak Mendebaldean ordezkatzeko du eta Irango Jayyam-ek, berriz, Ekialdea; azken batean, bat datozen bi mundu: “*Denborak eta urruntasunak banandu arren, biek gai berdintsuak jorratzen dituzte, antzeko emaitzekin baina estetika desberdinekin*”.

Transpoem sortu zenetik (maiatzean urtea bete zuen), hirugarren egitasmoa dute *Este es oeste*; aurreko biak *Zaum* eta *Los ecos invisibles* emanaldiak izan ziren. Getxoko talde honek poesiaren mugak igaro ohi ditu: “*Beti elkartuta egon diren arteak batzen ditugu: musika, zinema... Horregatik, gure errezitaldiak irudia eta zuzeneko musikaz hornituta daude, ez dugu testuen irakurketa hutsa egiten*”. m


«**Fernando Pessoa eta Omar Jayyam idazleen olerkiak aukeratu ditugu**»

liburuak



Txanponaren bi aldeak
Inaki Heras
Alberdania

Liburu hau lagungarri izango zaio gero eta korapilatsuagoa den ekonomiaren mundua ulertu nahi duen edonori. Eskuliburu egokia eta eguneratua da, baina alde bi ere baditu, txanponak bezala.



Berebereen alfonbra
Inaki Irasizabal
Hiria

Idazle durangarraren bigarren eleberrian nabarmentzekoak dira ekintzaren bizkortasuna eta prosaren erraztasuna. Bilbon kokatua den maitasun- eta heriotz-nobela hau polizi-generoan ere sailka daiteke.

DVD > Liwa, surf aldizkaria

Uhin berriak

Hiru **uribekostarrek** surfaren gaineko **aldizkaria** kaleratuko dute **DVD** euskarrian

Dagoeneko 0. zenbakia plazaratu dute, baina surfaren maitaleek abuztura arte itxaron beharko dute Liwa aldizkariaren lehen zenbakia esku artean eduki ahal izateko. Aldizkari berezia izango da, izan ere, DVD euskarrian kaleratuko dute eta. Surfa hizpide daukaten aldizkariaren ohiko irudi ikusgarri sortari, mugimendua gehituko zaie oraingoan.

Aitor Agirre da Liwa sortu duen hirukoteko kideetako bat. Jaiotzez donostiarra izan arren, Algortan egin du bizitza erdia. Garai baten kameralari ibili zen, eta hortik sortu zen, hain zuzen, aldizkaria egiteko ideia: “*Surfa grabatzen nenbilen, eta gustatzen zaigunez, bideo bat egitea bururatu zitzaigun. Bideo hark lagun artean arrakasta eduki zuenez...*”. Iker Elorrieta eta Eduardo Sáenz de Amilibia getxoztarrakaz batera, enpresa berria sortu ere egin zuen iazko abenduan, eta berehala aldizkaria presatzeari ekin zioten.

Liwak Europako surfa edukiko du oinarri. Zabalduek ere, kontinente osoetik zabaltzen ahaleginduko dira (erreportajeak



Aldizkariako lantaldea

bost hizkuntzatan egingo dituzte). Abuztuan argitaratuko den lehen zenbakirako, Eneko Acerogaz elkarriketa, Portugalgo Coxos surflarien txoko kuttuna eta atal finkotan banatuko diren beste hainbat gai landuko dituzte. DVDek 50 minutu irarungo dute, lau hilean behin kaleratuko dira eta surf dendetan izango dituzte zaleek eskura. m

Harremanetarako: 655 72 81 25

Ikusi >

Bidaide

Garazi Urdanpilleta da Euskal Telebistako lehen kateak lanegunetan eskaintzen duen *Bidaide* (“bidai lagun”) saioaren aurkezlea. Orduetegi finkorik ez dauka, baina goiz partean ikus daiteke, 10-12ak bitarte horretan; iraupen finkorik ere ez dauka, dokumentalen araberrakoa da-eta (bat edo bi botatzen badute). 1999ko ekainean hasi zen programa honek natura eta abentura ditu mintzagai. Desagertzeaz dauden animaliez hitz egiten dute (balea, elefantea, hiena, hartz zuria, errinozeroa, eta abar), baita Asiako eta Afrikako bestelako faunaz ere. *Bidaide*-k urrutiko paisaiak ere helarazten dizkigu, hurbilago dauden txoko askoren edertasunaz ahaztu gabe.

Irakurri > Elhuyar



1972an sortu zen *Elhuyar* aldizkaria, zientzia euskaraz azal zitekeela erakusteko. 1986an, berriz, bitan banatu zuten: batetik, Elhuyar izena gorde zuena, ikerketa-artikuluak argitaratzera zuzendua, baina 1996an diru-arazoez desagertarazitakoa; eta bestetik, gureganaino ailegatu den *Elhuyar zientzia eta teknika*, bere 64 orrialdeetan zientziaren zabalkundea modu entretenigarrian egiten ahalegintzen dena, 1989az geroztik hilabetero kalean duguna (ordura arte, bi hilean behin kaleratzen zuten). **Harremanetarako: 943 36 30 40**

uhinakFM

Getxo Irratia	87.6
Koska Irratia	89.8
Radio Euskadi	92.4
Euskadi Gaztea	94.7
Bilbo Hiria Irratia	96.0
Tas-Tas Irratia	97.0
eitb irratia	100.1
Bizkaia Irratia	102.6
Euskadi Irratia	104.4
Pititako Irratia	107.0

Egunkariak

prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero, etxera eramaten dizugu egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78
T: 94 491 27 34



BEREHALAKO
MEZULARITZA ETA GARRAIOAK

% 94 430 73 19
Faxa: 94 430 90 18

Elizondo, 1 (Villamonte) • 48991 GETXO

BILBO MICRO




“1982az geroztik
soluzio
informatikoak
eskaintzen”

ELKARTE ANONIMOA

Colón de Larreategui, 25 / 48001 BILBAO
Tf. 4230212 / Zerbitzu teknikoak: 4230213

[sarean]

Programak eskuragarri euskadi.net webgunean euskaraz dagoen software-a eskura daiteke doan

Eusko Jaurlaritzak inbertsio on batzuk egin berri ditu informatika arloan. Hasiera batean, Windows sistema eraginkorraren bertsioak itzultzeari ekin zion, dirutza ederra sartuz Bill Gates-en poltsikoetan. Orain, zorionez, badirudi azkenik epe luzerako balio duten tresnetan ere dirua sartu duela. Open Office bulego lanerako programa-sorta euskaratzeari ekin dio eta bere webgunean eskaintzen du dohainik (www.euskadi.net).

Open Office MS Office-ren parekoa da. Bertan, idazteko programa, kalkulu orria eta aurkezpenak egiteko software aparta aurkituko dugu, eta dena musutruk, software askearen inguruan dabiltzan milaka bolondresak eginda baitago. Jaurlaritzak webgune horretatik Xuxen euskara zuzentzailea (bai Windows eta bai Linuxekin dabi-



lena) eta Omnipage eskaneatzeko programa ere eskaintzen du. Azken honekin, euskarazko testu bat eskanerretik pasa ostean, programak berak ordenadorean alda daitekeen testua itzuliko du. Hau da, paperean soilik ditugun testuak ez dira berridatzi behar aldaketak egiteko. Prezio horretan, nork ez ditu hartuko eta proba egingo? ^m

webgida

SAREAN

>www.sarean.com

Euskal Herria Sarean du izena. Jabi Zabalak, Egunkariako lankide ohiak, abian jarri duen webloga. Bertan, gure inguruan Internet eta komunikazio kontuei buruzko hamaika gauzaren berri jakiteko parada izango dugu egunez egun. Diseinu egoki eta dotorea du, eta edukiak sarri berritzen dira.

CYBEREUSKADI

> www.cybereuskadi.net

Aurrekoa euskara hutsez eginda badago, honako hau elebiduna da, baina gaztelarazko berriak dira nagusi. Cybereuskadi askorentzat emailera heltzen zen buletina baino ez da izan hainbat urtean; orain, egileek teknologia berrien inguruko webgune bihurtu nahi dute, non irakurleek elkarrizketak, inkestak, eta puri-

Sarean aurkitu dugu > Asmakizun bitxiak



Internet-en irudi harrigarriak edo barregarriak topatzen baduzu, bidali UKra. Interesgarrienak aldizkarian hamabostero argitaratuko ditugu. ukaldizkaria@telefonica.net

Organik > Getxoko dantza-antzerki taldea

“Mugimendua da gure lanen oinarria”



Taldekieak Algortako Tellagorri plazan, *Tellagorri-Bi* lana antzeztzen (Argazkia, Bubu)

Hiru algortar, bilbotar bat eta poloniar bat. Iaz sortutako **Organik** taldeak dantza-antzerkia eskaintzen du, kalerako nahiz aretorako egokitutako lanetan. Bi estreinatu dituzte orain arte, *Tellagorri-Bi* eta *Tú o yo*, eta horiek zabaltzeko ahaleginean dabilta orain. Taldeko aktoreak, Jon Urraza algortarrak, eman digu **Organik-en** ibilbidearen berri, dantza-antzerkiaren nondik norakoak azaltzen dizkigun berbaldi honetan.

—Zer da Organik?

—Organik dantza-antzerki elkarte kulturala da. Natalia Mongek zuzentzen du, edo zuzendu ditu orain arte egin ditugun lanak. Berak dantza garaikideaz daukan ideia ez da kontzeptuala, zabalagoa baizik. Gure lanen oinarria mugimendua da, eta mugimendu hori organikoa da, ez estetikoa. Hortik dator gure izena. Forma azkeneko gauza da. Lehenago, istorio bat dago mugimendu horretara heltzeko.

—Aktore lege, zein da zure lana hor?

—Bai Nataliak mugimendurako daukan kotzeptuak, eta bai nik antzezpenarako daukadanak, funtsean oinarri bera daukate: organikotasuna, benetakotasuna. Hori nik hitzetara zuzendu izan dut eta berak mugimendura. Hitza edo mugimendua erabiltzen dugun bidea dira, baina abiapuntua bera da. Horrela publiko zabalago batengana ailegatzen gara, ez ulergarriagoa delako, baizik eta hain konplexua ez delako. Batzuetan, dantza hutsa hotzegia izaten da, nire ustez.

—Noiz sortu zenuten taldea?

—Natalia, Natxo, Ernesto eta laurok Eusko Jaurlaritzak antolatutako Koreografo Gazteen Jardunaldietan parte hartzeko elkartu ginen. 15 minutuko lanak dira, diru-laguntza txiki bat dago aurkeztu ahal izateko eta gero aukeraketa egiten da. Nataliak lehenagotik eskatuta zeukan diru-laguntza, horretan parte hartzeko; deitu egin zigun eta lan hori artean

«Ikusleek dantza modura hartzen dute gehienbat gure lana»

Organik izena eduki barik egin genuen, Nataliaren izenean. Ondo atera zenez, eta Nataliaren izen hutsez beharrean talde izena izatearren, Organik sortu genuen 2002ko udaberrian.

—Eta horretan jarduten duzue egunero?

—Bai, profesionalak gara eta profesional modura kobratzen dugu, baina hortik ateratzen dugunak ez du bizitzeko ematen, beraz bakoitzak badauzka bere gauzak, beste lan batzuk, Organiki lehentasuna emanda beti ere. Nik, adibidez, antzerki eskolak ematen ditut.

—Jendeak ondo hartzen du dantza-antzerkia?

—Bai. Dantza modura hartzen dute gehien bat, antzerki modura baino, pertsonaiak eta testua egon arren. Nik uste nuen baino gehiago ulertzen da. Ez daude ziur ulertzen duten, baina harrapatu egiten dute funtsa.

—Lan berririk prestatzen ari zarete?

—Ez. Orain, dauzkagun lanak saltzen ahalegintzen gabilta. Dantza saltzea oso zaila da izen handia ez badaukazu. Sortzea askoz politagoa da errepikatzea baino, baina jakina, sortu ditugunak zabaldu egin behar ditugu orain. ^m



orain
hamabostean
behin

aldizkaria
etxean
jaso nahi
baduzu

94 491 13 37

dirulaguntzak

Boluntzarreta
BBK 2095 0121 10 9102483676
sartu zure laguntza gure kontu zenbakian

UK Uribe Kostako Aldizkaria
171 posta kutxa / Amezti 6, 4. solairua 5.
bulegoa / 48990 Getxo / ukaldizkaria@telefonica.net / tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58
31 / bulego ordutegia: 08:00 / 15:00

[natura]

Gaia > nekazaritza ekologikoa Naturarenganako errespetuz

Gure eskualdean **leku sinbolikoa** dauka oro har **gorantz** doan nekazaritza ekologikoak

“Zaila da labor azaltzea” erantzun digu Patxi Monterok nekazaritza ekologikoa zer den itaundu diogunean. Montero Ekonekazaritza, EAEko nekazaritza ekologikoaren federazioko kidea da. Beragaz egin dugu berba gero eta zabalkunde handiagoa daukan nekazaritza mota honen gainean zeozer gehiago jakiteko. *“Balore-sistema oso baten arabera nekazaritza da”,* dio, *“mundua ulertzeko beste modu bat daukana oinarrian”*.

Nekazaritza ekologikoaren ezaugarrien artean, bi dira nagusi: *“Lurraren emankortasuna ziurtatzea eta baserria edo dena delako ustategia ekosistema txiki bat dela kontuan izanik, ekosistema horren orekari eustea”*. Abeltzantzaren kasuan, abereen bizi-baldintzen errespetua gehitu daiteke.

Hori lortzeko, hainbat teknika erabiltzen dira. Ezagunenak, beharbada, laboreen txandaketa da, alegia, *“ez jartzea urtero gauza berdina leku berdinean”*. Beste batzuk labore desberdinak elkarregaz landatzea edota lurra ez goldtzea dira: *“Pixka bat mugitu, bai, baina beraren egitura mantenduz, buelta eman gabe”*, dio Monterok.

Gipuzkoa da era honetako nekazaritzak indar handiena daukan herrialdea. *“Oraindik sektore txikia da hau, baina etengabe haziz doa, eta nahiko abiadura handian”*. Bizkaia da, EAEko hiru herrialdeetan, goranzko bilakabide horretan motelen agertzen dena. Uribe Kostan, esaterako, ustategi bik baino ez dihardute nekazaritza ekologikoan, biak Sopelan. m



Sasoia da > soloak

Solotxu bat duenak ondo daki bertan beharrean aritzeko egunak direla hauek. Aurretik landatutako barazki mota asko (tipuletak, piperrak, tipulak...) hartzeko sasoia baita hau. Beste ortuari batzuek oraindik hazten jarraitzen dute, baina belutxuago hartzekoak badira ere, arreta handia eskatzen dute, leka eta tomateak kasu baterako, hauei makilak ipini behar zaizkie-eta bertatik igo daitezzen. Baina gerora fruitua emango dutenetan ere pentsatu behar da, eta horiek landatzeko ordua da hau. Besteak beste, zerbak, porruak, azak edota perrexila. Duda barik, nekazariaren beharra garrantzitsua bai bada, baina eguraldiak eta soloaren kokalekuak, jakina, zeresan handia dute gero batuko den “uztan”.

[mugidu]

Txangoa >

Ereñozarreko mendia



Tontorretik Urdaibai goza daiteke. Behean, mendiaren gainan dagoen Mikel Deuna baseliza

Testua eta argazkiak: **Gonzalo Iribarnegaray**

Ingurune berde baten, 1984an UNESCOk biosfera-erreserba izendatutako parajea, Ereñozarreko Mikel Deuna mendia aurkituko dugu. Urrunetik ezagutzen da mendi hau, tontorrean eraikita daukan baselizari esker. Aldatzetako baten erdian Santimamiñeko leizeetaraingo eroango gaituzten 308 eskailerek hartzen dute gorako bidea. Kobazuloetatik gorantz, berriz, bideska estua abiatzen da, %33ko batz besteko maldaduna, soilik sasoi onean daudenentzako egokia. Tontorreraino eramango gaitu bidetxo honek, hau da, 447 metroraingo. Horra heldu arte, zuhaitzez inguratuta egingo dugu gora, lantzean behin ikuspegi ederraz gozatzeko aukera emango digun argiune batetik bestera. Ederrak horiek, baina gailurrera heldutakoan edukiko dugu benetan noranahi begiratura distantzia zabalak begiztatzeko aukera.



Bertan, lekutik garaienean, Goi Erdi Aroko hilobi bat gordetzen duen baseliza aurkituko dugu, lehenago X. mendeko gotorlekua zegoen lekuan. Bueltako bidea kontuz egin behar da, bidetik irtenda basoan ez galtzeko. Azkenean, ahalegina egin eta gero, leizepeko Lezika jatetxean jasoko dugu saria: janari bikaina eta zerbitzari eder jatorrak. m



Zelan heldu hara

• Gernikatik abiatuta, N-638 errepidea hartu behar da Lekeitiorantz. Kortezubi inguruan, eskumataren doan bidegurutze baten adierazita dago zein den Santimamiñeko leizeetara, Ereñozarreko Mikel Deunaren magalera, garamatzan errepidea.

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO



350^{m²}
KIROLERAKO
GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO
KIROL
DENDA

TORRENE 4
ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA
TF. 94 491 18 82

Gogoa >
Sindrome maniakoa

Nagore Etxebarri psikologoa

Gogo-aldartearen nahasketei hasiera emango diegu sindrome maniakoaz hitz eginez. Honen ezaugarri nagusia jeneralean baino baikorrago, *expansibo*ago edo suminkorrago agertzea izaten da. Gaitz hau diagnostikatu ahal izateko, ondoko sintometatik hiru edo lau agertu behar dira gutxienez: gehiegizko autoestima, logura gutxi, normalean baino askoz berritsuago azaltzea, ideien ihesia, lekoratzeko joera, helburu bakar bat duten iharduerak areagotzea eta ondorio kaltegarriak dakartzaten ekintzetan gehiegi aritzea arriskua onartu barik.

Argi utzi behar da, printzipioz, sindrome honetan aluzinazioak eta eldarniozko ideiak ez direla agertzen. Horrela bada, beste gaitz larriago baten sintoma gainjarria izan daiteke hau.

Aipatu ere aipatu behar da, nahasketa hau jasutzen duenak ez duela gaixorik dagoela onartuko. Beraz, bere tratamendua oso zaila da eta tartean, bere ingurukoak eta bere giza-haremanak ondatu ditzake. Gaitz hau bat batean hasi eta bukatzen da eta normalean luzea ez bada ere, depresio baten iragarlea izan daiteke. Hau dela eta, kaltetuarentzat oso onuragarria da prozesu hori ahalik eta azkarren etetea.

Horrelako nahasketa baten eragile nagusienak, estresa eta antidepresiboen gehiegizko erabilpena izaten dira. 4

Gorputza > jan

Zer-nolako dieta egin beharko genuke?

Lourdes Unzueta medikua

1. Askotarikoa

Denetarik jan behar da, ez da elikagai bat bera ere baztertu behar. Halako dieta batek berehalako osagai guztiak izan beharko lituzke, hau da, karbohidratoak, proteinak, lipidoak edo gantzak, bitaminak eta zenbait mineral.

2. Orekatua

Funtsezko beste ezaugarri bat dieta orekatuarena da. Ez da nahikoa eguneroko dietan era askotako janariak hartzea; horrezaz gainera, oreka bat mantendu behar dute elikagaiok. Jan-neurri orekatu batek elikagai plastikoak (proteinak batez ere), erregulatzailerak, energi emaleak (karbohidratoak eta lipidoak batez ere), mineralak eta bitaminak izan behar ditu. Eta zein proportziotan? Gaur egun, eta aurretiaz berehalako osagaien sailkapenak duen zailtasuna kontuan hartuz, aholkatzen diren ehunekoak ondoko hauek dira: karbohidratoak: %60; lipidoak: %20-30; proteinak: %10-15.

3. Kaloriatan nahikoa

Pertsona bakoitzak egunero zenbat kaloria behar duen jakiteko hainbat faktore hartu behar dira kontuan: adina, generoa (gizonezkoa ala andrazkoa den), pisua, gorpuzkera, lanbidea (jarduera fisiko handikoa ala txikikoa den), inguruko tenperatura eta abar. Kalkuluak konplikatu samarra dirudi, baina azken baten, arauak nahiko sinpleak dira:

normalean, gizonezkoek andrazkoek baino kaloria gehiago behar dute; zenbat eta jarduera fisiko handiagoa orduan eta kaloria gehiago; adinean aurrera eta orduan eta kaloria gutxiago. Batezbesteko adina eta jarduera fisikoa hartuta, egunero pertsona heldu batek behar duen batezbestekoa 2.500-3.500 cal. bitartekoa da.

4. Sasoian sasoiko janariak osatua

Sasoian sasoiko janariak jatea gomendagarria eta osasungarria da. Hau da, freskotan kontsumitu behar dira, orduantxe dute eta balio biologiko eta bitamina-kopururik handiena. Gaur egungo globalizazioarekin eta nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza intentsiboekin, ematen du denetik dagoela dendetan urteko edozein sasotian. Baina badira oraindino ere hala-nolako aldizkakotasuna gordetzen duten elikagaiak: ilarrak, babak, lekak, mahatsa, gereziak, antxoak, atuna, berdela, arkumea... Elikadura aldetik aipatu ditugun balioen aldetik aberatsagoak izateaz aparte, merkeagoak-edo izaten dira elikagaiok bere sasoian (ez dut prezio konturik larregi aipatuko, gure umezaroko antxoaren prezioa eta gaurkoena alderatuz gero, biok sasoian sasoiko izanda!).

Amaitzeko, ez ahaztu janaririk tentagarrienak, gehienetan, osasunerako kaltegarrienak direla: janari gazituak, gozokiak edota esnekiak. Eutsi tentaldiari! m



Bularretakoek eta kuleroek mikrofibrak eta tulak daramatzate gehienbat

Azpiko arropa Barrukoa eta pertsonala

Medikuek bularretakoaren erabilera gomendatzen dute, titiak oso sentikorrak direlako. Gomendioak alde batera utzita, bularretakoa emetasunaren ikonoa da. Bularretako bat dago emakume bakoitzarentzat, eta bularretakorik gabeko emakumeak ere badira...

Bularretakoaren historiari erraparatzen badiogu, ohartuko gara titi-zorroak erabiltzen hasi ziren lehen emakumeak Kretakoak zirela, Kristoren aurreko 1700. urtean. Gerora, erromatarren garaian, halako euskailuak eroateak “zibilizatuak” zirela erakusten ei zuen; horrela bereizten ziren “barbaro”etatik, hauek titiak aske zeuzkaten eta.

Baina gaur egun ezagutzen dugun bularretakoa duela gutxikoa da: 1913an asmatu zuen New Yorkeko Mary Phelps Jacobs-ek; hala ere, janzki berriaren erabilera ez zen hedatu 50eko hamarkada ailegatu arte. Hippyen mugimendua puri-purian zegoenean, osterako, atzerakadaxoa izan zuen; esaterako, feministek bularretakoak erre ohi zituzten “gizonezkoen zapalketatik askatzeko”. Azken 15 urteotan, ordea, berreskuratu egin da, bai eta andrazkoen lentzeriaren izar bihurtu ere.

Egun, bai bularretakoak bai kulero-

ak sona handiko diseinugileen inspirazio-iturri dira dagoeneko. Jean Paul Gaultier frantziarraren kasua, adibidez, oso esanguratsua da; berak egin zituen Madonna-ren kanpoko titi-zorroak. Janzki honen inguruan berrikuntzak egon dira azkenaldian: nork ez du

«Mary Phelps Jacobs-ek asmatu zuen gaur egungo bularretakoa»

gogoratzen *Wonderbra* miraritsua?

Oraingo joeraren arabera, bularretakoak ondo eman behar du jantziarekin; horregatik, emakume askok agerian uzten dituzte uhalak. Oinarrizko koloreez gain (marroia, zuria eta beltza), urdinak, gorriak, moreak eta estanpatuak dira nagusi. Bestalde, gaurko kuleroek tanga itxura daukate. Eta aipatutako guztia barrutik ere eder egoteko. m

I

I aki
Bitxitegia
Ω
OMEGA AGENTZIA OFIZIALA
Villamonte T: 4302345
Algorta

Torrene 2, ALGORTA
T: 94 491 12 71

Errotalde
ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90
Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

GIZONENTZA -
KO MODA
Telletxe 5
ALGORTA
T:

Mar a Jes s

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA
Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA
HARTU TXANDA

ALBE alerik ale

Inoizko sasoirik onenean

Unai Angulo > Mikroari heltzeko irrikan

Testua: Josu Arroyo / Argazkia: Asier Mentxaka

Eskolako gazte-beteranoa, ilusioz gainezka, oholtzan neurria ematea, horixe bere kezka. Badaki ziriari eusten, eta bere-berea duen estiloaz, hortxe dabil, txiri-txiri, saioz saio, beti onena ematen.

—Nondik datorkio Unairi bertsolaritza-
rekiko zaletasuna?

—Ni beti izan naiz bertsozalea, baina salto handia dago bertsozale huts izatetik eskolako partaide izatera. Ni bertso saioetara joaten hasi nintzen garaian, Fredi eta Xabi artean umeak ziren, baina harrigarria zen Fredi bertsotan entzutea. Fredik anaia txikia eramaten zuen saioetara, eta azkenean Xabik ere koplaren bat botatzen zuen. Horrek guztiak erakarri ninduen, baina orduan futbolearen nabilen, eta ez nintzen erabat sartu. Eten luze bat etorri zen ondoren, eta berriro hasi ginen, eskolak ikastolan egin ziren azken urteetan. Orduetik hona prozesu luze bat izan da, talde sendo bat osatuz joan da, eta egun jo eta ke gabiltza, benetan gustura.

—Nola da posible bertsotan egitea, erabat eskolatuta egon gabe?

—Gure moduko bertsolarientzat eskolako asteroko bi orduak labur geratzen ziren bertsotan ikasteko, eta horretan hirugarren denbora oso garrantzitsua izan zen, eta oraindik ere hala da. Hirugarren denboran talde handia batzen zen, eta “pike” politak sortzen ziren, lehenengo koplata, eta gero, apurka-apurka, baita bertsotan ere. Aurrerago, orain pare bat urte, Bizkaiko Txapelketari begira, girotze saio bat egin zen Betiko ikastolan, eta hantxe



«Bertsotan egiteko, hirugarren denbora oso garrantzitsua izan da beti»

ikusitua nuen lehenengoz bertso saio batean neurri egokia emateko gai nintzela.

—Gainera, laguntalde handia etortzen da zurekin beti saio guztietara...

—Askotan, saio batera zoazenean, ez dakizu zenbat jende topatuko duzun, eta nik alde horretatik ziurtatuta daukat lagun berotasuna. Gauza handia da; haiek beti galdetzen didate “non kantatu behar duzu asteburu honetan?”, eta edonon dela ere, animatu egiten dira. Baina ez pentsa nirekin zaletu direnik, aspalditik dira bertsozaleak, eta azken Bizkaiko Txapelketetan ia saio guztietan izan dira, bertsolarien jarraituen zehatza eginez. Paregabeak dira!

ERAKUSLEIHOA

- Unai Angulo Aldekoa.
- 1971an jaioa, Bilbon. Algortar peto-petoa.
- Batxilergoa, Aixerrota-Getxo III Institutuan.
- Informatika ikasketak eginda (Deustun).
- Egun Bilboko enpresa batean dabil lanean, informatika saileko arduradun.

HIRU LERROAN

Eskolatik mundura

Bertsojartzailea: Unai Angulo / Doinua: Aita izena kanta beharrak

1

Gogoetetan ibilaldi bat, hiru bertsoak tarteko. Bertso eskolan aipamena da puntua ibiltzen hasteko, hainbeste urtez hainbeste jende bildu dala abesteko, nahiz ta oraindik ale onenak gordeta dauz emoteko. Gura dauanak asteartero geugaz leku bat badeko!

2

Bertso eskolatik Euskal Herrira zuzenduta begirada, hauteskundeak igaro jakuz, kirats usaiaz beharbada. Baina oraindik bide luzea zoritxarrez sumatzen da. Ametsak amets, kontuak kontu galdera hor doa, hara: Bertso biriribil eder batean noiz bihurtuko ore gara?

3

Azken saltoa gura dot emon gizarte eta mundura. Gizarte hontan bi eta bi lau ez direla naz kontura; agintaritzat izenda dabe nonbait, diruan kultura, lehen idi probak genduzan eta orain gerra da ohitura. Mundua ez da inona baina guztiona da ardura!

“Txapel Bete Bertso dela eta, asteburuko agenda beteta daukat. Sinestezina da!”

—Zein leku betetzen du eskolak egun herrian?

—Barrura begira gauza asko komenta daitezke eskolari buruz, eta gehienak onak dira; oso jende ona dago, gaztetxoak bikain dabilta eta nagusiok inoiz baino plaza gehiago ditugu. Ardurak nahiko ondo banatuta daude, eta hogeitai saiotik gora egiten dira urtero herrian. Eta kanpora begira, zer esanik ez, eskolak ospe handia hartu du, eta herrian antolatzen diren ekitaldi ia guztietan eskolak bere presentzia ziurtatzen du.

—Eta zein asmo dauka Unaik gerora begira, orain plazarik plaza ederto zabiltzala jakinda?

—Zer esango dut, bada, nik. Egia da orain, Txapel Bete Bertso tartean dela, asteburuko agenda nahiko beteta dauka-

dala. Saioak Sopelan, Elorri... sinestezina da! Baina nik gauzak oso argi daukat. Jailetako saioak direla edo Txapelketa dela, helburua ahal den neurrian gozatzea da. Nik ez dut inoiz desilusio edo haserrealdirik hartuko txapelketa batean kanpoan geratzeagatik eta horrelako kontuengatik. Tentsioa beti egongo da, beharrezkoa delako, baina bestelako estuasunik ez dut pasatuko. Bertsolariaren filosofiak hori izan beharko luke nire ustez.

Futbolari moduan ezagutu dugunok, badakigu zelaian tipo garbia eta apala zela, eta bertso giroan ere mutil maitatua da, sekula ez baita haren ahotik berba txarrik entzungo. Orain, gainera, bertso maila dotorea eskuratu du Unaik, eta ale honestako bertso jarriak ditugu horren isla. m

BERTSOAGENDA

Txapel bete bertso

Ekainak 20. 20:30etan, *Sopelako Laia tabernan*. Bertsolariak: Joanes Igeregi, Unai Angulo, Oihana Bartra eta Miren Ibarluzea.
Ekainak 21. 20:00etan, *Zubilleta auzoan*. Bertsolariak: Ekaitz Larrazabal, Xabier Paia eta Etxahun Lekue.

Balkoitik balkoira

Ekainak 21. 22:00etan, *Portu Zaharrean*. Bertsolariak: Xabier Amuriza eta Anjel Mari Peñagarikano.

Janari kontuak

Hurrengo lerroetan janari kontuez arituko gara, gai honen inguruko zenbait berba gurean nola esaten diren ezagutzeko edo gogoratzeko asmoz. Beraz, irakurle, gose bazara eta laster jateko aukerarik izango ez baduzu hobe duzu artikulu hau beluago irakurtzea.

Testua: **Urtzi Iglesias**

Euskaldunoi yatea gustatzen zaigula kontu jakina da, **beskari** zein **afari** ederrak egiten ditugu zerbait ospatzeko eta lagunak elkartzeko aitzakiaz. Horietan, ondo **yan**, **kafe** eta **kope** hartu... eta egingo dugun hurrengo afari bati buruz berba ere egiten dugu.

Mendira joaten garenean ere, **hamakatako** ez da inoiz falta; **pernille**, **txorixo**, **gastaya**... **ogi** apur bategaz eta **ardauaz** lagunduta ederto sartzen dira tontorrera heldu ostean.

Armosateko (gosaltzeko), **kafekoletxe**, **txirkori** (txikoria), edo kolakao modukoak hartu ohi ditugu, baita **galletak** edo **tostadak** ere.

Bazkalorduan, lehenengo plater moduan edo hasteko, honako **yatekok** izaten dira: **arrosa**, **sope** garbantzukaz, **gixeduk**, **lapikokok**, **indaba gorri**, **indaba zuri** eta **germike-se** (Gernikako indaba)... edo baita **berdure** ere: **ensalade** (**orio**, **binegre** eta **gatzagaz**), **aselgek** (edo **asalge**), **bañek** (lekak), **kalabase**, **koniflora**, **porrusalde**...

Ondoren, **okele** edo **arrañe** hartu ohi dugu edota **arrutzek**, **tortille**, **buskentza**... modukoak ere. Okelen artean, **gierra**, **solo-mo**, **kalluk**, **txulete**, **falde**... ditugu. Arrañe ere gozo-gozoa da: **besegu**, **lebatza**, **makal-lo**, **angulek** (hauek dastatzea ez da batere erraza) edo **txitxarro**, **antxobak**, **sardinek**... Baina hauek guztiak yateko, beharrezkoa da **ogi**, plateran lotzen den **basi** (salsa) **ogiz**



batzen baitugu askotan.

Eta amaitzeko, **postrea**, nahiz eta bete-bete eginda egon, beti egiten diogu lekutxu bat postreri. Gustora hartzen dugu **arrozkoletxe**, **intxur saltze**, **konpote**, **sagar erre**k... edota **frute** apur bat ere: **kerexak**, **madari**, **malluki**, **milikota** (baita **melokotoya** eta **milokotoya**), **okeranak** edo **naranje**.

Bada yatordu bakar bat ere galtzen ez duenik, eta beraz, **meriende** (baita **berinde**) ere hartzen duenik; **koputxu** (mokadutxu) bat besterik ez bada ere. m

«**Gustora hartzen dugu arrozkoletxe, intxur saltze, konpote, sagar erre**k...»

esakera 01

«**Amen amen iñ, ta norberana iñ**»

Denari bai esan, baina gero norberak berea baino egiten ez duenean esan ohi da. Nork ez du inoiz horrelakorik egin? Burura dotorkit edozein ama eta bere semearen artean sortu daitekeen egoera. Semeak ez dio amak esandakoari ezetz esango, baina gero esandakoa egingo du? Askotan ez.

Iturria: Iñaki Gaminderen lanak.

Gure berbakerak 2

GURE AZENTU(VI)

Testua: **Xabi Bilbao**

Azentun ganerako bosgarren kapitulun ikusi gendun berba azentudunek, kasik danak, berezitasunen bat daukela, eta horren berezitasunen bitartez koixten daudela azentu. Lau berezitasun mota dauz, esan gendun lez, berba bateri azentu emoten dautsenak. Horretatik berezitasunetatik aietu gendun hirugarrena ikusiko dogu gaur hemen: **latinetik eta erderatik datozen berba askok dauken azentu**. Burun auki beti, berba “azentudune” esaten dogunen, esan gure dogule berbak beti silaba baten finketute darola azentu: **áurre**, **éusker**a, **neskáto**, **esáker**a berbak azentudunek direz, eta ostera, **esku**, **lagune**, **mutille**, **kuntzurrun**e berba azentubakok (ikus Berbakere 14 eta hurrengok), eta horreitik erabilten doguz azkeneko silaban azentu imiñite banan-banan aietutuen doguzenen, hemen lez.

Erderatik (gaztelaniatik) hartu doguzen berba askok azentu daraude erderaz azentu dauken silaba beratan:

<i>ánimu</i>	<i>teléfonu</i>
<i>lástime</i>	<i>anteóju</i>
<i>médiku</i>	<i>kandéla</i>
<i>plástiku</i>	<i>eskóla</i>
<i>tráfiku</i>	<i>kásik</i>
<i>mekániku</i>	<i>móda</i>
<i>polítike</i>	<i>tortilla</i>

... eta beste hainbet eta hainbet adibide. Pentsa leite, honelau adibidek ikusite, ez daule zer esan handirik kontu honetan, guk erderako berba bat erabilten dogunen erderako azentu gorde egiten dogule eta kitu, baia ez da beti holan. Aietu doguzen berban ondon beste asko dauz erderaz azentu daukenak baia guk azentu barik erabilten doguzenak:

<i>antoju</i>	<i>freskure</i>
<i>berde</i>	<i>gera</i>
<i>besegu</i>	<i>gobernu</i>
<i>biáje</i>	<i>kamiño</i>
<i>boltsa</i>	<i>plaza</i>
<i>errekadu</i>	<i>torre</i>
<i>estorbu</i>	<i>tripe</i>

...eta beste asko. Ganera talde bien bitarten dauzen adibidek bere badekuz, hau da, bai erderako moduko azentuez eta bai hori azentu galdute entzun leitezenak. Honek direz adibide batzuk, nik Getxoko ingirun batu dotezenak:

<i>akórdu</i> / <i>akordu</i>	<i>gástu</i> / <i>gastu</i>
<i>bánku</i> / <i>banku</i>	<i>kóru</i> / <i>koru</i>
<i>difüntu</i> / <i>difuntu</i>	<i>pórtu</i> / <i>portu</i>
<i>fáma</i> / <i>fama</i>	<i>toréru</i> / <i>toreru</i>

...eta beste batzuk. Badau zer esan ondiño kontu honen ganen, baia hemen itxiko dogu gaurkoz. Ondo ibilli! m



orain
hamabostean
behin

aldizkaria
etxean
jaso nahi
baduzu

94 491 13 37

dirulaguntzak

Boluntzarreta
BBK 2095 0121 10 9102483676
sartu zure laguntza gure kontu zenbakian

UK Uribe Kostako Aldizkaria
171 posta kutxa / Amezti 6, 4. solairua 5.
bulegoa / 48990 Getxo / ukaldizkaria@telefonica.net / tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58
31 / bulego ordutegia: 08:00 / 15:00



Euskaldunagoa?
Oso zaila dago.

Independenteagoa?
Ez da erraza.

Pluralagoa?
Zein bezain plurala?

Hobea?
Hoberena zen.

baina
hobetuko
dugu
zure laguntzarekin

berria berri

Akzioei buruzko informazioa:
www.ektsa.net
Tf: 635 733 385 · 635 733 386

Euskara merkataritzan

Euskara ikasten duten **merkataria**k diruz **lagunduko** ditu Getxoko Udalak

Euskararen normalizazio bidean, Getxoko Udalaren euskara zerbitzuak programa berri bat prestatu du. Merkataritza munduan euskara sustatzeko helburua du programak eta horretarako, 2500 euroko dirulaguntza eskainiko die euskaltegian matrikulatzen diren merkatariei, bitartean, ordezkapena egiteko langile berria kontratatu ahal dezaten.

Ekintza hau martxan dago jadanik Udalerako behar egiten duten langileekin eta horregatik merkataritza sektorera ere zabaltzea erabaki dute.

Programak zati bi izango ditu. Lehenengoaren ardatza informazioa izango da; honela, kanpainaren materiala eman-go diete merkatariei, horren inguruko zehaztapen guztiak argitzeko asmoz. Horrekin batera, denda bakoitzaren egoera soziolinguistikoa, euskararen erabilera maila, edota erabilera hori bultzatu edo saihesten duten arrazoen berri izateko informazioa bilduko du Udalak; eta baita enpresariaren eskaerak eta iradokizunak ere. Bigarren zatian, merkataritzan elebitasuna lortzeko bideak jorratzeko zenbait konpromiso proposatuko ditu Udalak.



Horrez gain, programak, beste zenbait laguntza eskaintzen ditu: itzulpen zerbitzua, errotuluak aldatzeko dirulaguntzak, hiztegien banaketa eta hizkuntzaren inguruko aholku ematea. m

«Itzulpen zerbitzua ere eskaintzen du udalak»

Euskararen transmisioa helburu Uribe Kostan

Uribe Kostako Mankomunitateko euskara zerbitzuak euskararen transmisioa bultzatzeko kanpaina jarriko du martxan. Kanpaina hau, bikote gazteei eta haur txikiak dituzten bikoteei zuzenduta dago. Honela, bikote hauek eskutitz pertsonalizatua jasoko dute eta horrekin batera, haurrei txikitatik euskara irakasteak duen garrantziaren inguruko zenbait aholku ere; familia baita inguru arruntena eta eraginkorrena haurrek euskara jaso dezaten. Horrez gain, sehaska kantez osatutako CD bat, lerde-zapiak, askaria hartzeko poltsak eta margoak jasoko dituzte. Kanpainak, “Esaidazu euskaraz” lema izango du eta gurasoek euskararen transmisioan duten erantzukizunaz ohartaraztea du helburu. (Gehiago jakiteko: 94 676 26 74)

Uribe Kostako Euskara Zerbitzuak zure zerbitzura

Getxo: 94 491 14 41 • Leioa: 94 400 80 44 • Erandio: 94 489 01 40 • Berango: 94 668 00 08 • Gainerako herriak: 94 676 26 74

Euskara ikasten dute

Edu Pardo (Sopela)



—Noiz hasi zinen euskara ikasten?
—Ikastetxean oso gutxi ikasi nuen, eta orain dela zortzi urte euskaltegian aritu nintzen bi urtetan.
—Zein mailatan zaude?
—EGA mailan nago.
—Non ikasten duzu?
—Aurten Sopelako Udal Euskaltegian, baina Algortako AEKn ere ikasi dut.
—Zerk bultzatuta ikasi zenuen euskara?
—Hizkuntzak oro har gustatzen zaizkit eta horrek bultzatuta ikasten dut.
—Zer da gehien kostatzen zaizuna?
—Aditzak, eta batez ere hitz egiterako orduan aditza ondo erabiltzea nahiko zaila iruditzen zait. Baita hiztegia ere.
—Orain arte ikasitakoa erabiltzen duzu?
—Bai, baina oso gutxi, saiatzen naiz erabiltzen. Batez ere etxean eta batzutan kalean, hala ere oso jende gutxi daki euskara, eta dakitenok ez dute normalean erabiltzen.
—Zelan definituko zenuke euskara?
—Gure hizkuntza da eta erabili egin behar dugu. Gainera hizkuntza polita da. m



gaizka escudero / villabotas-ekoa

Pasta entsalada

Udaren atarian gaude eta gorputzak jaki fresko eta arina-goak eskatzen dizkigu. Eta, bada entsalada on bat baino plater egokiagorik urteko sasoi berotsu honetarako? Oraingoan proposatzen dizuedan hau, plater bakarra izan daiteke udako edozein egunetarako. Gainera, hamar minutu baino ez dira behar hau prestatzeko. Hasteko, egosi oilasko petxuga bat eta makarroi ale batzuk. Bestetik, platerean, letxuga, tomatea (uda bere sasoia da), azenario txikitua, arto egosi aleak, tipula eta sagar zati batzuk (piña ere izan daiteke) jarri. Gero, saltsa egingo dugu. Horretarako nahastu gustura, mahonesa, Dijongo mostaza, Perrys saltsa apur bat eta tabasko tanta batzuk. Hau guztia pasta eta oilaskoarekin nahastu. Azkenik oliba olioia, gatza eta ozpin apur bat bota. On egin. ^m



osagaiak

*pasta • oilaskoa • sagarra
letxuga • artoa • azenarioia
• tomatea • erremolatxa
mahonesa • Dijon-eko
mostaza • Perrys saltsa
oliba olioia • gatza • ozpina*



itsaso arana / jolastoki-koa

Tenerifekoak

Gaur egun estatuan badira 54 jatorri izendapen (erderaz D.O.). Ardoa leku gehiagotan egiten da baina ez dute jatorri izendapenik lortu. Oraingoan Abona D.O. ezezaguna ikusiko dugu. Tenerife irlako hegoaldean dago eta Adeje, Arona, Villaflor, San Miguel Arico, Fasnia eta San Miguel de Abona hartzen ditu izendapen honek. Beltzak eta gorriak ere egiten diren arren, ezagunenak ardo zuriak dira. Mahats motei dagokionez, zuriak, *listan zuria*, *verdello*, *malvasia*, *sabro* eta *bermejuelo* dira landatuenak, beltzak berriz: *listan beltza* eta *negramoll*.

Ardo zuriek jantzi distiratsua izaten dute; arinak, sikuak, alaiak eta dotoreak izaten dira. ^m

Bodegak eta ardoak:

- *Coop. Cumbres de Abona*.
—Flor de Chasna, zuria
—Viña Peraza Ecológico, zuria
- *La Ortigosa SL*.
—Leña Blanca, zuria

Candela jatetxea

plater ikuskizuna Berangon



Argazkian, Alfredo Gonzalez eta Gaizka Telleria

Oraingoan Berangora hurbildu gara Alfredo Gonzalezek duela bost urte zabaldu zuen Candela jatetxearen berri izateko. Jantoki ederra duen jatetxea da eta eskaintza zabala dute bertan: edonoren sakelaren eskueran dagoen eguneko menua astean zehar, eta asteburuko menu berezi bi.

Lanegunetan, menuak 7 euro balio du eta aukera zabala eskaintzen du: 5 plater hasierarako, eta arrainetik bi eta beste bi haragitik, bigarren platererako. Postre eskaintza ere zabala da, 12 eta 14 artean baitaute aukeran.

Asteakabuan, berriz, 18 eta 24 euroko menuak dituzte. Lehenengoan, hasierako

4 plater, gehi haragi bi eta beste horrenbeste arrain. Bigarrenerako, ostera, 7 hasierako plater eta 3 arrain edo 3 haragi. Guztietan ardoa eta postrea barne. Gainera, menuak ez errepikatzen ahalegintzen dira.

Plater sorta eder honen arduraduna Gaizka Telleria bermeotarra dugu. Arraina eta okela plantxan egiten ditu: hori du bere berezitasuna. Aldi berean, egile-sukaldaritza eta sukaldaritza tradizionala uztartzen dituen sukaldaria dugu Gaizka. Plater berritzaileak ere egiten ditu, baina kantitatez beti eskuzabal. ^m


CANDELA JATETXEA (Berango)
Simon Otxandategi, 1 / 94 668 23 65

jakingehiago



Arrantza > antxoa eta berdela “Uzta” eskasa aurton

Antxoa eta berdela harrapatzeko sasoiak da, berez, urtaro hau. Aurton, baina, oso gutxi harrapatu da; arrantzaleek *Prestige*-ren hondamendiari leporatzen diote horren errua, eta oraindik ez da egon aurkakoa frogatu ahal izan duenik. Zelangura, horrek ez ditu arrainki hauen ezaugarri bikainak gutxituko. Oso goxoak izateaz gain, kolesterola ez pilatzeko egokiak dira, arrain urdin guztiak bezala. Gainera, proteina eta bitamina ugari daukate, bihotzeko gaixotasunek jotzeko arriskua gutxiagotzen dute eta ez daukate kaloria gehiegi.



jateko

- urdaitegia
- frutadenda
- elikagaiak

Amezti 4 -Tf.: 94 491 06 54
ALGORTA



Taberna Bern

Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf.: 944 306 493



ardoak



Eskaintza
6 botila
3 bot. ardo beltz
3 bot. ardo gorri
18 €
+4,65 €
BIDALKETA GASTUAK



Bodega
S. Miguel S.C. Eslava
Nafarroa
Tel. 948 73385

Nafarroako Jatorrizko Deitura

Sirgún

Negarretik egindako Gorkia
Elaborazioa: mahatsik onenen lehenengo negarra temperatura baxuetan hartutako fruta freskoa guztia gorde dezan. **Dastaketa-obarrak:** ginga kolore argia, aratza eta distiratsua. Aroma intentsu eta garbiki lore eta fruta freskoa gogorarazten dute. Sudurrean gozosa eta dotorea da. Ahoan freskotetasun baltsamikoa du, konplexutasuna eta pisua ematen dizkiona. **Uztartzea:** aperitibo gisa aparta, baita saltsan egindako arrainekin eta okela zuri edo lumadunekin ere.

Garnacha zaharreko Beltza
Elaborazioa: 50 urteko gora duten guneko ohiko mahatsietako aukeraketa zaindua. Haritz amerikarrek upelatan batuz beste lau hilabetez ondura. **Dastaketa-obarrak:** kolore aberats eta estaliko ardo beltza, ontzearen ondorioz lortutako geruza meheko eboluzioarekin. Sudurrean interesgarria eta konplexua, zuraren baina: eta espezie-aktibak, baricitatearen fruta-usainarekin ezin hobeto konbinatzen direna. Ahoan delikatu, pisu nabarmeneko eta tanino orekatuekin, eta amaieran, berriro ere agertzen dira fruten eta mineralen aromak. **Uztartzea:** ezin hobeto doa menurik oneneko jakikin nahiz sukaldaritza bikaineneko sormen-lanekin.



DEI IEZAGUZI ETA EGUN GUTXI BARRU

ZURE ETXEAN

EDO OPARITAN ZUK NAHI DUZUNARI BIDALIKO DIOGU



902 45 12 12
IRUÑA • EUSKAL HERRIA



prentsa ¥ aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)
T:94 430 69 42 /ALGORTA

EREAGA

Bidaia
Autobusak


T: 94 453 08 16 - 609 405 988
Faxa: 94 453 33 34
GETXO

OLATXO

altzariak
dekorazio-opariak

Andres Larrazabal, 11 AREETA T.: 94 464 89 94
Juan Bautista Zabala, 5 ALGORTA T.: 94 491 13 94

VILLABOTAS JATETXEA



Menu merke eta bariatuak
Especialitateen karta
Giro atsegina

T: 430 43 33
Villaondoeta 2, ALGORTA

[horoskopoa]

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Bikotekide barik bazaude, adi egon, bizitzako amodiorik handiena aurki dezakezu. Zure sakelak gastu berriei aurre egin beharko die. Baliteke ikasketetan edo lanean nahiko estututa ibiltzea. Ondo zaindu eztarria.

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Bihotz arloko harremanik ez baduzu, zuretzat oso garrantzitsua izango den nor-bait ezagutuko duzu. Inbertsioak egiteko egunik aproposenak. Laneko ohiturek denbora oso poliki igaroaraziko dute. Gaurtik aurrera zure bizi-tonua igotzen hasiko da.

ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)
Bikotekidea baduzu, saia zaitetz bera entzuten asko irakatsiko dizu eta. Gastuen gehiegikeriek zuloa egingo dizute itsulapikoan. Negozio eta lanarekin argi ibili atsekaberik eduki nahi ez baduzu. Duzun urduritasun horrek hausnarketa behar du.

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)
Zuk zeuk hedatuko duzun erakargaritasun handiari esker, mota guztietako pertsonak zureganatuko dituzu. Diru kontuak hobeto joango zaizkizu. Zure lanetik kanpo ezagutarazteko garairik onenean zaude. Aurreko egunetan baino osasuntsuago ibiliko zara.

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)
Bihotzeko lagunarekin ika-mikak edukiko dituzu eta zintzoa ez zarela esango dizu. Unerik egokienean zaude aspaldiko zorrak kitatzeko. Zure ospe profesionalak goraka-da izango du. Osasun alderik, makal eta emozio mailan, oso sentibera.

META



(Irailak 17 urriak 16)
Adiskidetasun berri bat hasteko orduan izarrak alde izango dituzu. Aparteko diru-sartze batek estualdi batetik aterako zaitu. Lan arloan aretaz ibili. Ondo etorriko litzaizuke naturarekin harreman gehiago izango bazenu.

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Ez utzi familiak edo lagunak zure gaur egungo harremanean muturra sar dezaten. Ustekaberik ez izateko, zure diru-kontuetan ordena ipini. Telefono dei bat oso onuragarria izan daiteke zure lan kontuetarako. Gorputzez eta buruz, indartsu.

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Gustokoa izango duzun eta aldi berean nazka emango dizun pertsona bat ezagutuko zorian zaude. Diru kontuetan beheraldia jasaten ari zara. Egitasmoak dituzu baina nagusiak edo bazkideak aurka izango dituzu. Zure gorputza zaindu, muga duelako.

HAZIA



(Urriak 17 azaroak 15)
Giro ezberdinetako jendearekin harremanean hastea komeni litzaizuke. Garai ona da proiektu ekonomiko berriak proposatzeko. Laneko gaietan, zuhurtasun asko izan, eta lankideekin, kontuz. Arreta gehiago jarri janarian eta edarian.

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Esaiozu argi eta garbi zure bikotekideari zer espero duzun zehatz-mehatz. Izarrek nahaspila eragin dezakete zeure ekonomian. Antza denez, lankide bat jeloskor dabil zure arrakastarekin. Ez jan nahi duzun guztia, sabelak sufitutuko du eta.

IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)
Zure harreman berriarekin primeran jibiliko zara. Diruarekin eta orokorrean zeure ondasunekin arduratsuagoa izan zaitetz. Ez saiatu zure irizpideak lankideei onarrarazten, tentsioak ager daitezke eta. Ondozik bazaude, espezialistarengana joan.

NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)
Inongo bekdur barik salto egin maitasunera eta istorio polita biziko duzu. Zentzudunagoa eta neurritsuagoa izan behar duzu diruarekin. Zure burua hain bizkor egongo da, lanean gura duzuna lortuko duzula. Neke garria dator, baretzen ahaleginak egin.



mungia

oKINDegia

Algortan badaukagu
artisaunen ogia
izen eta jatorriz
da “ogi mungia”.

Goizero lortzen dogu
obispoen guleria
probatu bada edo ez
dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76
ALGORTA

[komikia]




KEKO

denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

HITZ GURUTZATUAK



Ezker eskuin

1. Balakatuak, ferekatuak. 2. Laruzko oinetako. Arrazoi. 3. Iparraldean, nezake. Arrantza ontzi txiki. 4. Bizkaiko herria. Garai. 5. Iridioaren sinbolo kimikoa. Urrea. Gipuzkoako hiria. 6. Euskal langile sindikatua. Barda. Boroa. 7. Bizkaieraz, Inola. (Infin.) Ukitu. 8. Letoniako hiriburua. Aluminioa. Musika nota. 9. Trebea. Sortu zintuena. 10. Koskadun. Naizen hau.

Goitik behera

1. Langile klasea. 2. Martxan jaria. 3. Zirt edo..., erabaki! Ikusmenaren organoa. 4. Asia Txikiko antzinateko hiria. Asiako estatua. 5. Nor pluralean. Amerikako estatua. Kanpo. 6. Zubereraz, ibarra, harana. Emakume izena. Uranioa. 7. Bostehun. Bokala. Iridioa. Behar, egiteko. 8. Uztarriz lotu. Mila. 9. Iparraldean, keinu. Eskoziako familia-multzo. 10. Amerikako estatua. Iodoa.

Soluzioak

I	N	N	U	T	S	V	A	K	V	A
V	A	M	V	V	O	I	V	I	A	I
V	L	L	V	V	G	I	R	I	R	I
I	K	U	N	V	L	E	Z	E	E	E
B	T	R	V	B	B	V	L	V	L	V
N	U	R	I	U	V	R	I	R	I	R
O	R	V	V	K	I	T	V	G	V	V
L	E	T	V	B	O	R	I	N	V	V
O	I	Z	V	K	H	V	V	V	V	V
K	U	D	N	V	I	Z	V	L	V	V



EUSKALDUNON
denbora-pasa
eta hitz jokoen
hilabetekaria

Zozketa mundiala*
harpidedunen artean
8 eguneko kruzeroa 2 lagunentzat
Mediterraneoan (otorduak barne)

* Zozketa 2003/03/31n egingo da

BIDALI ZURE DATUAK ETA IZAN ZAITEZ LUMA-KO HARPIDEDUN

Luma
BAGABIGA, E.M.E.
Istillaga plaza 2 behe. 307 PK-20304 IRUN
Tfnoa: (+34) 943 62 95 64 - (+34) 943 63 08 83
luma@xedera.com / www.xedera.com

asmatu eta irabazi > ARGIA astekariaren opariak



Nor da?

- Azpeitiar hau andereño izan zen 17 urtez
- Besteak beste, *Ama begira zazu* antzezlanean parte hartu zuen
- Maria Luisa pertsonaiak sekulako ospea eman dio

> Aurrekoaren erantzuna: Fermin Muguruza
> Irabazlea: *** Zelai Nikolas (Algorta)**

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean
bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
ukaldizkaria@telefonica.net / faxa: 94 491 58 31

•Argia astekariaren biru
hilabeteko harpidetza doan



•Freexkue
liburua

www.argia.com



ARGAZKIA, F. JAVIER URRETXUAK UTZITAKOA

Bittor Egurrola

Franco osteko Getxoko lehen udalbatza, 1983

Hona hemen frankismo ondoko Getxoko lehen udalbatza demokratikoa (1979-1983). Argazkia legegintzaldiaren amaieran hartuta dago, 1982an. Udalbatza honek alkate bi izan zituen: lehenengoa, Javier Agirre Bilbao, urtebete inguru karguan egon eta gero Garaikotxearen Jaurilaritzan osasun kontseilari izendatu zuten. Bigarrena Francisco Javier Urretxua (1980-1983) izan zen, Algortako mediku ezaguna eta San Nikolas ikastolako lehendakari ohia.

Argazkian ez dira udalbatza osatzen zuten zinegotzi guztiak agertzen. Hauexek dira falta direnak: Bakarne Artetxe (HB), J. M. Egurrola (HB), Alvaro Zurita (UCD), Esteban Onandia (PNV), J. M. Alonso (HB). Ignacio Pagdigorria (UCD, legegintzaldian hil zen), Joaquín M. Nebreda (UCD), Cándido Arrieta (PNV), Valentín Solagaistua (HB), Agustín Sarria (PSOE), J. M. Uribe (PNV), eta José Luis Ramos Uranga (PNV).

Udalbatza honen lana ez zen batere erraza izan, batez ere hasieran. Hasteko, ez zuten inolako eskarmenturik zeregin horretan. Garai hartan Estatutua onartu barik zegoen (1979an onartu zen), beste horrenbeste Kontzertu Ekonomikoa ere. Gainera Udalean egitura osoa frankista zen, eta funtzionarioak ere bai. Dirua lortzeko hamaika joan-etorri egin behar izan zituen alkateak. Azkenez gogoratu, gerraurreko azken alkate demokratikoa Justo Zabala izan zela. m

Goian: J. M. Ezkurdia (PNV), Edorta Elizondo (PNV), Luis Bergaretxe (PNV), Javier Aretxabaleta (PNV), Josu Arrieta (PNV).

Erdian: Gabriel Etxanobe (UCD), Jon Txomin Arandia (HB), Felix Etxebarria (HB), Josu Arostegi (PNV), Jorge Churruca (UCD), Manuel Idagarraga (PNV), Julian Billalabeitia (PNV), J. M. Lopez (PNV).

Behean: M. L. Larrañaga (PNV), M. Antonia Goti (PNV), F. Javier Urretxua (alkatea), Concepción Alfaro (UCD), Marisa Barrie (UCD), Daniel Diez (PSOE).

TAKOLO > *Basetxea* saioko irabazlea

“Moskeaten nazenean
tenple gitxikoa naz”



Zure izaera definitzen duen ezaugarriren bat...

Oso pertsona umoretsua nazela esango neuke..

Zein da zure akats edo maniarik nabarmenena?

Arin berotuten naz, moskeaten nazenean tenple gitxikoa naz.

Zure haurtzaroko oroitzapen bat...

Hemen Errigoittin, txikitan, hiru *armuzu* jaten direz...

Errigoittin gosariei *armuzu* deitzen jake. Uda sasoién, lehenengo, ixekoaren etxera joaten nintzen eta gero, bilbotar batzuk etorten ziren hona, eta eurekaz ere *armuzua* egiten neuen, eta gero, etxean beste bat.

Zer da jarraitzaile batek esan dizun gauzarik ederrena?

Ez dodaz piropo asko entzuten; orain, azkenetako bat, *Basetxea*-n onena izan nazela esatea izan da.

Zein komentariok egin dizu kalte gehien?

Lerdoa nazela entzutea; batzutan jendeak min egin gure dau.

Zein da zure libururik gogokoena?

Los pilares de la tierra da irakurri doten azkena. Apur bet astune egin jaten.

Abestirik gustukoena?

Ba... Jamaikako ska erako edozein abesti. Ezin dot bat aipatu, taldeak lez, asko eta asko dire gustaten jatezanak.

Eta film bat?

Matrix. Denbora pilo bat egon naz ikusteko gogoaz eta azkenean orain dala gitxi ikusi ahal izan dot.

Zein lelorekin egiten duzu bat?

Independentziagaz.

Zertan edo norengan sinisten duzu?

Sinistu... Zeure buruan ez badozu sinisten, nogan sinistuko dozu, ba?

Zerk ematen dizu beldurra?

Bakardadeak.

Nork edo zerk egiten zaitu zoriontsu?

Inguruko jendeagaz pozik egoteak, moskeorik sortu barik.

Errepikatzen zaizun ametsa...

Basetxe barruan sikan, janariagaz amets egiten neuen: jaten genbizela edota erosketak egiten. m

TAKOLO— Ander Zearra dugu *Takoloren* egiazko izena. ETB1eko *Basetxea* saioa irabaztegitik, Errigoitiko gazte honek bere ametsetakoa bidaia egin ahal izango du laster, Jamaikara, hain zuzen ere. *Basetxean* asko ikasi omen du *Takolok*: gosea, hotza, ezezagunekin bizitzea zer diren ezagutu du. Nahiz eta gorriak ikusi, bizipen hau atzera hartuko lukeela aitortu digu, bai *Basetxean* bertan edo era horretako beste programaren batean.